

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Gipuzkoako Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de
Gipuzkoa**

2022







AURKIBIDEA

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA ETA IRITZIAREN OINARRIA	12
II.1 Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia	12
II.2 Legezketasuna betetzeari buruzko iritziaren oinarria.....	12
II.3 Urteko Kontuei buruzko iritzia	13
II.4 Urteko Kontuei buruzko iritziaren oinarria	14
III. FUNTSEZKO GAIAK	14
IV. GIPUZKOAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN KUDEAKETA-, GOBERNU- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOEN ERANTZUKIZUNA.....	15
V. HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN ERANTZUKIZUNA.....	15
VI. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	16
VI.A Gipuzkoako Foru Aldundia	16
VI.A.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	16
VI.A.2 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea	17
VI.A.3 Transferentziak eta dirulaguntzak	18
VI.A.4 Laguntza-zerbitzuak eta gizarte-politikako hitzarmenak.....	20
VI.A.5 Pertsonaleko gastuak	20
VI.A.6 Ondarea.....	21
VI.B Foru erakunde autonomoak.....	21
VI.C Merkataritzako foru sozietateak.....	21
VI.D Foru fundazioak.....	21
ERANSKINAK	23
A. Urteko kontuak	23
A.1 Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuak.....	23
A.2 Foru erakunde autonomoen kontuak.....	26
A.3 Merkataritzako foru sozietateen kontuak.....	30
A.4 Foru fundazioen kontuak.....	32
A.5 Gipuzkoako Foru Sektorre Publikoaren kontu bateratuak.....	34
A.6 Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzaren iraunkortasuna	36





B	Gipuzkoako Foru Aldundia	37
B.1	Alderdi orokorrak eta araudi ezargarrak.....	37
B.2	Aurrekontuko aldaketak eta konpromiso-kredituak	38
B.3	Pertsonaleko gastuak.....	39
B.4	Gastu korronteak ondasun eta zerbitzuetan	41
B.5	Transferentziak eta emandako dirulaguntza korronteak eta kapitalezkoak.....	42
B.6	Inbertsio errealak eta ibilgetua	45
B.7	Sarrerak, zordunak eta zerga-hartzekodunak.....	46
B.8	Transferentziek eta dirulaguntza korronteek eta kapitalezkoek eragindako sarrerak	49
B.9	Ibilgetu finantzarioa eta aktibo finantzarioak	50
B.10	Zorra	51
B.11	Aurrekontuz kanpoko zordunak eta hartzekodunak	51
B.12	Aurrekontu- eta ondare-emaiztaren arteko kontziliazioa.....	52
B.13	Kontratazioaren analisisa	53
B.14	Dirulaguntzen analisisa.....	58
C	Foru erakunde autonomoak.....	60
C.1	Pertsonaleko gastuak.....	60
C.2	Kontratazioaren analisisa	60
D	Merkataritzako foru sozietateak.....	62
D.1	Ibilgetu ukiezina eta materiala eta epe luzeko zuzkidurak	62
D.2	Ibilgetuko inbertsioak eta izakinak	63
D.3	Epe laburreko finantza inbertsioak	63
D.4	Zorpetzea eta finantza gastuak	64
D.5	Pertsonaleko gastuak.....	64
D.6	Hornidurak eta ustiapeneko bestelako gastuak.....	65
D.7	Beste batzuk.....	65
D.8	Kontratazioaren analisisa	66
E	Foru fundazioak.....	67
E.1	Pertsonaleko gastuak.....	67
E.2	Moneta-laguntzak	67
E.3	Jardueraren beste gastu batzuk	67
E.4	Kontratazioaren analisisa	68
	ALEGAZIOAK	69





ÍNDICE

ABREVIATURAS	81
I. INTRODUCCIÓN	83
II. OPINIÓN Y FUNDAMENTO DE LA OPINIÓN	86
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	86
II.2 Fundamento de la opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	86
II.3 Opinión sobre las Cuentas Anuales	87
II.4 Fundamento de la opinión sobre las Cuentas Anuales	88
III. CUESTIONES CLAVE.....	88
IV. RESPONSABILIDAD DE LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN, DE GOBIERNO Y DIRECCIÓN DEL SECTOR PÚBLICO FORAL DE GIPUZKOA.....	89
V. RESPONSABILIDAD DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS	89
VI. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	90
VI.A Diputación Foral de Gipuzkoa	90
VI.A.1 Presupuesto y contabilidad.....	90
VI.A.2 Contratación de bienes y servicios.....	91
VI.A.3 Transferencias y subvenciones.....	92
VI.A.4 Servicios asistenciales y convenios políticas sociales	94
VI.A.5 Gastos de personal	94
VI.A.6 Patrimonio	95
VI.B Organismos Autónomos Forales	95
VI.C Sociedades Mercantiles Forales	95
VI.D Fundaciones Forales.....	95
ANEXOS	97
A. Cuentas Anuales.....	97
A.1 Cuentas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.....	97
A.2 Cuentas de los Organismos Autónomos Forales.....	100
A.3 Cuentas de las Sociedades Mercantiles Forales	104
A.4 Cuentas de las Fundaciones Forales	106
A.5 Cuentas consolidadas del Sector Público Foral de Gipuzkoa	108
A.6 Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera	110





B	Diputación Foral de Gipuzkoa	111
B.1	Aspectos generales y normativa aplicable	111
B.2	Modificaciones presupuestarias y créditos de compromiso	112
B.3	Gastos de personal	113
B.4	Gastos corrientes en bienes y servicios	115
B.5	Transferencias y subvenciones corrientes y de capital concedidas	116
B.6	Inversiones reales e inmovilizado	119
B.7	Ingresos, deudores y acreedores tributarios	120
B.8	Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes y de capital	123
B.9	Inmovilizado financiero y activos financieros	124
B.10	Deuda	125
B.11	Deudores y acreedores no presupuestarios	125
B.12	Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	126
B.13	Análisis de contratación	127
B.14	Análisis de subvenciones	132
C	Organismos Autónomos Forales	134
C.1	Gastos de personal	134
C.2	Análisis de contratación	134
D	Sociedades Mercantiles Forales	136
D.1	Inmovilizado intangible y material y provisiones a largo plazo	136
D.2	Inversiones inmobiliarias y existencias	137
D.3	Inversiones financieras a corto plazo	137
D.4	Endeudamiento y gastos financieros	138
D.5	Gastos de personal	138
D.6	Aprovisionamientos y otros gastos de explotación	139
D.7	Otros	139
D.8	Análisis de contratación	140
E	Fundaciones Forales	141
E.1	Gastos de personal	141
E.2	Ayudas monetarias	141
E.3	Otros gastos de la actividad	141
E.4	Análisis de contratación	142
	ALEGACIONES	143

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 29a

Vitoria-Gasteiz, a 29 de febrero de 2024





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
ENP	Enpresa.
FA	Foru Araua.
FPEK	Finantza Publikoen Euskal Kontseilua.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
IAGE	Irabazi asmorik gabeko erakundea.
IEB	Inbertsioen Europako Bankua.
IZFE	Informatikako Zerbitzuen Foru Sozietatea SA.
LPZ	Lanpostuen zerrenda.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
PI	Prozedura irekia.
PIH	Arautze harmonizatuari lotutako prozedura irekia.
PIS	Prozedura Ireki Sinplifikatua.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
TE	Toki-erakundea.





I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2022rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2022ko ekitaldiko Kontu Orokorren fiskalizazioa mamitu du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak informazioa eman behar du foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondarearen egoerari buruz, ekitaldiko ekonomia eta ondarearen emaitzei buruz eta aurrekontuen likidazioari buruz; besteak beste, honako agiri hauek osatzen dute:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko kontuek eta kudeaketa txostenak.
- Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen urteko kontuek.
- Foru sektore publikoaren bateratutako kontuek

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoa honako hauek osatzen da:

- Foru Administrazioa, zeina Foru Aldundian gorpuzten baita.
- Erakundeen administrazioa, zeina honako foru erakunde autonomo hauek osatzen baitute:
 - Uliazpi Fundazioa, zeinaren xedea eta jarduera adimen ezgaitasun larria duten pertsonak eta haien senitartekoak artatzea den.
 - Kabia, zeinaren helburua baita gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta egikaritzea.
- Merkataritzako foru sozietateak (guztiak ere GFAk % 100ean partaidetutakoak):
 - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA, zeinak foru eta toki administrazioari informatika zerbitzuak ematen dizkion.
 - Bidegi-Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA; sozietatearen xedea A-8 eta AP-1 autobideetako Gipuzkoako bide-zatiak eta barnera handiko beste autopista eta bide batzuen instalazio eta zerbitzuak mantendu, zaindu, eraiki eta ustiatzea da.
 - Etorlur, Gipuzkoako Lurra SA, zeinaren xedea lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu eta jarduera ekonomiko, etxebizitza eta era guztietako ekipamendu publikoak besarkatuko dituen lurzorua saldu eta erostea den. Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan nekazaritza-lanetarako erabilgarria den lurzorua erosi eta kudeatzea ere helburu du.
- Foru fundazioak:
 - Kirolgi Fundazioaren xedea da Gipuzkoako kirola sustatu eta garatzea, lehenasunezko arreta eskainiaz errendimenduko kirolari, bereziki babesletza publiko eta pribatuak erakarrita.
 - Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoa bitarteko iraunkorrez hornitzea, suteen prebentzio eta itzalketako gaietan trebatzeko eta prestatzeko, bai eta sua itzaltzarekin eta, oro har, salbamenduko gaietan adierarik zabalenean, trebatzeko ere, esparru horretan erreferente izan nahi baitu.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Adinberri Fundazioa, zeinaren helburua baita Gipuzkoako berrikuntza-potentziala ahalik eta gehien handitzea, zahartze osasungarriaren, gizarte- eta osasun-sistemaren bikaintasunaren eta arlo horretako industriaren lehiakortasunaren zerbitzura.
- Gipuzkoako Klima Aldaketarako Fundazioa, zeinaren funtzioak baitira GFari laguntzea klima-aldaketak Gipuzkoan duen eragina aztertu, behatu eta kontrolatzen eta Gipuzkoako klima-aldaketaren aurkako borroka-estrategiaren aurrerapausoen ebaluazio- eta jarraipen-prozesua bermatzea.
- Ziur Fundazioa, zeinaren xedea den eskualdearen gaitasuna indartzea fabrikazio aurreratuaren arloan, bereziki zibersegurtasun industrialean, sektore teknologikoaren garapena sustatuz eta Gipuzkoako enpresen nazioarteko lehiakortasuna eta posizionamendua indartuz, bereziki sektore industrialekoak.
- Mubil Fundazioaren helburua da GLHren gaitasunak indartzea elektromugikortasun gaietan, mugikortasun elektrikoari lotutako sektorearen garapena sustatzea eta Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna eta kokalekua nazioarte mailan indartzea.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den araudia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, hornidurak eta zerbitzuak, dirulaguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Urteko Kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren akatsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Gure lana Fiskalizazioaren oinarrizko printzipioen eta sektore publikora egokitutako nazioarteko auditoretza-arauen arabera egin dugu. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu HKEEren Erantzukizunak atalean.

Gipuzkoako Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeekiko independenteak gara, otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta fiskalizazio publikoko jardura arautzen duen araudian eskatutakoaren arabera gure fiskalizazioari aplikagarriak zaizkion etikako eta independentzia babesteko eskakizunei jarraikiz. Gure iritzira, eskuratu dugun auditoretzako ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia du auditoretzako iritzia emateko.

Erakunde autonomoek, merkataritza-sozietateek eta foru-fundazioek kanpoko auditoreek egindako urteko kontuen auditoretza dute. Gure lana auditoretzako txostenak berrikustea izan da eta horretarako, egoki irizitako proba osagarriak eta auditoretzako beste zenbait prozedura gauzatu ditugu.





Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, lan honen behin-behineko emaitzak 2023ko abenduaren 11n Diputatu Nagusiari eta Diputatu Nagusi ohiari helarazi zitzaizkien; baita Ogasun eta Finantzen Sailari ere, egindako fiskalizazioari dagokionez interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin eta agiriak aurkez zitzaizkien.

Alegazio guztiak aztertu eta baloratu dira, eta txosteneko testua ezabatu edo aldatu egin da komenigarri iritzi zaionean, eta bere horretan eutsi zaio txostenean deskribatutako egoera berresten duten azalpenak direla uste izan bada, edo justifikazioekin bat ez badatoz edo adierazitako adierazpenak dokumentu bidez justifikatzen ez badira. Alegazio horiek txosten honi txertatu zaizkio.





II. IRITZIA ETA IRITZIAREN OINARRIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektorre Publikoa osatzen duten erakundeek, ondotik zehaztutako Iritziaren oinarriaren atalean aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2022ko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.

II.2 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2022ko urriaren 5a arte 49 langileri guztira 1,8 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaen arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, izan ere horien kalte-ordainak badaude PFEZtik salbuetsita, urtarrilaren 17ko 3/2014 F Aren 9. artikuluaen arabera (ikus B.3).
2. Pleguetan aurreikusi ez den 2022ko ekitaldirako prezioen eguneratzea, hirugarrenek emandakoa eta onuradun mota desberdinei zuzendutako gizarte zerbitzuei aplikatua, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du eta urteko % 6,3 eta % 6,6 arteko igoera du. Eguneratze horren ondorioz, urtean 15,5 milioi euro igoko da (ikus B.5.2). Onartutako igoera horrek, batez ere eskulanaren kostuekin lotuta, gaintitu egiten du Espainiako Ekonomia Desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako muga, eta muga hori bat dator sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien igoerarekin, 2022ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen eta urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuari jarraikiz (% 3,5). Egoera bera gertatzen da desgaitasuna duten pertsonen zerbitzuak emateko irabazi-asmorik gabeko erakunde bati emandako dirulaguntza izendun batekin, horri prezioak % 6,3 eguneratu baitzaizkio, hau da 431.878 euro (ikus B.14 eranskina, 10. espedientea).
3. GFAk gizarte-zerbitzuen zortzi kontratu izapidetu ditu, SPKLren 29.4 artikuluan aurreikusitako 3 hilabeteko aurrerapenik gabe. Aurreko esleipendunek zerbitzuak eta hornidura ematen jarraitzen dute behin kontratuak amaitu ostean; honela, bada, espedienterik gabeko gastua 2022ko ekitaldian 12 milioi euro izan da (ikus B.13.2).
4. GFAk hornidura bat eta bi zerbitzu kontratatu ditu, 2022ko ekitaldian 2,6 milioi euroren guztizko gastuarekin, dagozkion prozedura irekiak erabili gabe. Egoera bera gertatzen da lau obra, hornidura eta zerbitzutan, 1,6 milioi euro guztira, zeinak, gutxienez, prozedura ireki sinplifikatuen bidez izapidetu behar baitziratekeen (ikus B.13.2).





FORU ERAKUNDE AUTONOMOAK

5. 2022ko ekitaldian Kabiak gauzatzen jarraitzen du iraungitako hogeita sei kontratu, 2018, 2019, 2020 eta 2021ean transferitutako egoitzen aurreko toki-erakunde titularrek beren gain hartu eta sinatutakoak; honela, bada, 24,1 milioi euro gastatu da kontratazio-espedienterik gabe (ikus C.2.2).
6. Kabiako Gobernu Batzordeak onartu du hirugarrenek egoitzetan ematen dituzten gizarte-zerbitzuen prezioak 2022ko ekitaldirako % 6,5 eguneratzea, hau da, 2,6 milioi euroren igoera izatea. Onartutako igoera horrek, batez ere eskulanaren kostuekin lotuta, gainditu egiten du Espainiako Ekonomia Desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako muga, eta muga hori bat dator sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien igoerarekin, 2022ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen eta urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuari jarraikiz (% 3,5).

FORU FUNDAZIOAK

7. Mubil Fundazioak publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitutako komunikazio-plan bat ezartzeko kontratuan, zeina aleko prezioetan adjudikatu eta kontratuaren hasierako iraupena 113.256 euroan zenbatetsi baitzen (BEZa barne), aurretik abiarazitako prozedura esleitu gabe utzi ondoren, lizitatzailleetako bakar bati deitu zion aurkezteko; ordea, prozedura irekian parte hartu zuen beste lizitatzaillea ere gonbidatu behar zukeen (ikus E.4).

II.3 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Gure ustez, hurrengo Iritziaren oinarria atalean deskribatutako auziek izan ditzaketen ondorioak alde batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, 2022ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza-egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion haren eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako eta aurrekontuko printzipio eta irizpideen arabera.





II.4 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. 2022ko abenduaren 31ko Diruzaintzako Geldikin Osoa 18,9 milioi euro handitu behar da data horretan aurrekontuan erregistratu gabe zeuden zordun eta zerga-hartzekodunak hornidura kenduta islatzeko (ikus B.7.2).
2. Ibilgetu material eta ukiezinak 2022ko abenduaren 31n 2.826,1 milioi euroren amortizazio-kostu garbia izan du eta ez dago kontu-sail jakinetarako inbentario batean euskarrিতua, zeinaren kostu garbia guztira 693,4 milioi euroena baita; honenbestez, ezin jakin daiteke ondasun eta eskubide horien egiazko egoera (ikus B.6).
3. 2022ko abenduaren 31n indarrean jarraitzen dute GFAn eta dena delako udalek sinatutako zortzi hitzarmenek, Gipuzkoako Foru Aldundiari zaharren egoitzetako eraikinak doan lagatzeko, lagapena formalizatzeko hitzarmenetan ezarritako bederatzi hilabeteko epea amaitu ondoren. Adinekoentzako zortzi egoitza horiek Kabia erakunde autonomoaren ohiko jardueran sartuta daude sinatutako hitzarmenak indarrean sartu zirenetik, eta ez daude ez GFAn ez Kabia erakunde autonomoaren balantzeetan jasota. Halaber, egoera-balantzean erregistratzeke daude Lazkaoko, Zumaiako eta Zumarragako egoitzen obrako administrazio-emakidak.
4. GFAn kontuetan ez da jasotzen salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzat GFAn A-15 eta N-1 edukiera handiko errepide-zati jakin batzuk erabiltzeagatik kanona ezartzeagatik jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen ondoriozko ondare-erantzukizunaren pasiboa. Erreklamaturako zenbatekoa 5,5 milioi euro da, eta horri dagozkion berandutze-interesak gehitu beharko litzaizkioke (ikus D.7a).

ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA SA

5. Azkoitiko Intsausti eremuan egin asmo den sustapenaren zehaztugabetasun egoerak eta eremu horretako lursail eta eraikinen gaineko aditu independenteen balorazio-ezak eragotzi egiten du sozietatearen aktibo korrontean balorazioa -3,8 milioi euro- zuzena dela ondorioztatzea (ikus D.2).

III. FUNTSEZKO GAIAK

Kontuei buruzko Iritziaren oinarrian deskribatutako auziak alde batera, erabaki dugu ez dagoela auditoretzan aintzat hartzen diren bestelako arrisku esanguratsurik, gure txostenean jakinarazi beharrekoak direnak.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. GIPUZKOAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN KUDEAKETA-, GOBERNU- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOEN ERANTZUKIZUNA

Ogasuneko Departamentuak eta Gipuzkoako Foru Sektorre Publikoko gainerako erakundeek zuzendaritza-organoek (GFA eta erakunde autonomoak) urteko kontuak egiteko ardura dute. Eta kontu horiek Gipuzkoako Foru Sektorre Publikoko ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta aurrekontuaren exekuzioaren irudi zuzena erakutsiko dute, ezargarria den informazio publiko finantzarioaren arau-esparruarekin bat etorriz (esparru hori memorietao oharretan identifikatzen da), bai eta beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrolarekin bat etorriz ere, urteko kontuak iruzurraren edo akatsen ondorioz oker materialik gabe prestatu ahal izateko.

Kontu horiek Foru Gobernu Kontseiluak onartu zituen 2023ko uztailaren 26an, eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu zain daude.

Gainera, Gipuzkoako Foru Sektorre Publikoaren kudeaketa-, gobernu- eta zuzendaritza-organoek bermatu behar dute ekitaldian zehar egindako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan islatutako informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauarekin, eta beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolako sistema ezarri behar dute, egindako jarduerak legezko ez-betetzerik ez duela bermatzeko.

V. HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburua da arrazoizko segurtasun bat izatea adierazteko finantza-egoerek, oro har, ez dutela iruzur edo errore baten ondoriozko oker materialik eta kontu horietan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikagarria zaien araudiarekin, gure iritzia jasoko duen fiskalizazio-txosten bat jaulkitzeko helburuarekin.

Arrazoizko ziurtasuna izateak ziurtasun maila handia dagoela esan nahi du, baina ez du bermatzen kanpo kontrolako organoak arautzen dituen araudiaren arabera egindako fiskalizazioak beti akats materiala aurkituko duenik, halakorik dagoenean. Akatsak iruzur edo errore baten ondorio izan daitezke eta/edo legea ez betetzearen ondorio, eta materialtzat jotzen dira Epaitegi honen irizpideak aplikatuta, baldin eta arrazoiz aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabakietan eragina izango dutela.





VI. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

VI.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

VI.A.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- GFAk "Inbertsio errealak" kapituluan errepideak mantentzeko gastuak kontabilizatu ditu, 56,3 milioi euroren zenbatekoan, eta "Besteren ibilgetuan" egindako lanak eta instalazioak, 9,2 milioi eurorenak; horiek guztiak ondarean kudeaketa arrunteko gastuen atalean erregistratzen dira, ez-kapitalizagarritzat jotzen diren eragiketak jasotzeko (ikus B.6).
- Geroraturako zerga-zordunen epe laburreko mugaeguneratzeak, 78,3 milioi eurorenak, aktibo ez-korrontearen egoera-balantzean sailkatu dira, epe luzeko mugaeguneratzeekin batera (ikus B.7.2).
- GFAk 22,4 milioi euro ordaindu ditu (ekitaldiko ordainketa guztien % 5,6), Merkataritza-eragiketetan berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen 3/2004 Legean aurreikusten den hogeita hamar eguneko epea gaindituta (15/2010 Legeak eta 4/2013 Errege Dekretuak aldatutakoa, ekintzaileei laguntzeko, hazkundea estimulatzeko eta enplegu-sorrerarako neurriei buruzkoak).
- Kirołgi Fundazioaren Patronatuko Batzordeak ekitaldiko aurrekontua onartu du eta dirulaguntza izendunen tratamendua eman dio. Alabaina, xehakapen nominatibo hori ez du GFAk GLHren ekitaldiko aurrekontu-proiektuan txertatu, zeina Batzar Nagusien aurrean aurrekontua onartzeko tramitatu baita. Dirulaguntza izendun izaera izan dezan, xehakapena aurrekontua tramitatzean barne hartu behar da. Fundazioaren kontuetan 2022ko ekitaldian dirulaguntza horien kontzeptuan erregistraturiko gastua 3,3 milioi eurorena da (ikus E.2).
- BSTK Fundazioa 2022ko abenduaren 31n dago izena emateko prozesuan, eta, beraz, ez dago 2022ko ekitaldiko Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrean sartuta. 2022ko iraileko eratze-eskrituran 2 milioi euroko zuzkidura ezarri zen. Fundazioen erregistroak gomendatu zuen fundazioa 30.000 euroren gutxienekora murriztea, fundazioaren helburuak betetzeko egokia eta nahikoa zelako. Gomendioa onartu ondoren, BSTK-k zuzkidura zuzendu zuen, eta gainerakoa -1,9 milioi euro- gastu arruntetara eta fundazioaren aktiboak erostera bideratu zuen. 2023ko ekitaldirako Fundazioaren Jarduketa Planak aurreikusten du 2022koa den 1,9 milioi euroko zenbatekoa basoberritze-prozesuetara bideratuko dela 2024an. Beraz, 2022ko ekitaldiko aurrekontua ez da zuzena, 2024an egitea aurreikusten den gastuak jasotzen baititu.





VI.A.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Kontratazio espedienteak (ikus B.13.1)

2022ko ekitaldian esleitutako eta lehenagoko ekitaldietan esleitu eta ekitaldi horretan gauzatutako kontratazio espedienteak aztertzetik honako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:

- GFaren Urteko Kontratazio Publikoaren Planak ez ditu barne hartzen prozedura ireki harmonizatu (pih) bidez izapidetu eta esleitutako bost espediente (8tik 11ra bitarteko eta 16. espedienteak), horietako hiru guztira 15,4 milioi euroan, eta horietako bi aleko prezioetan.
- Guztira 87,4 milioi euroan esleitutako hogeita bat espedientetan (3tik 10ra, 12, 13, 17tik 26ra eta 34 zk. espedienteak), "prezioa" irizpidea baloratzeko erabiltzen den formulak ez ditu jarraitzen 2018ko ekainean Foru Gobernu Kontseiluak kontratazioaren kudeaketan onartutako praktika egokien gomendioak, formula hori erabiltzeko arrazoiak justifikatu gabe.
- Bost espediente (9, 10 eta 12tik 14ra zk. espedienteak), 2,5 milioi eurorenak, esleitzeko ebazpenek ez dute adierazten zein den kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko enpresa esleipendunaren hitzarmen kolektiboa.
- Guztira 15,2 milioi euroan esleitutako hiru espedientetan (8, 12 eta 13 zk. espedienteak), kontratazio-organoak ez du Segurtasun eta Osasun Plana onartu.
- Guztira 373.980 euroan esleitutako bi espedientetan (13 eta 33 zk. espedienteak), esleipena bi eta sei hilabete atzeratu da, hurrenez hurren, legean aurreikusitako epearen arabera.
- Guztira 626.101 euroan esleitutako espediente batean (9. espediente), bermea urteko baten gainean eskatzen da; esleipena, baina, hiru ekitalditarako da.

Beste batzuk

- Haurtzarorako arreta espezializatuaren arloko hezkuntza-laguntza indibidualerako zerbitzuak (prozedura ireki bidez esleitutako kontratuen zerbitzu osagarriak), 2022ko ekitaldian 1,3 milioi euroren gastua izan dute eta kontratu txiki moduan izapidetu dira; ordea, aleko prezioen bidez esleitu beharko lirateke, kontratu nagusiaren esleipenarekin batera.
- Gizarte-politika sailak emakumeak eta haurrak artatzeko psikologoek kontratazioa Gipuzkoako Psikologoek Elkargo Ofizialarekin izenpetutako lankidetzak-hitzarmen baten babesean egiten du, arreta psikologikoa emateko hiru programatan esku hartuko duten profesionalak homologatzeko. Gure iritzira, GFak Elkargoari eskatu beharko lioke proposatutako profesionalak hautatzeko gauzatu dituen jarduketak egiazta ditzala. 2022ko ekitaldian gastua 1 milioi euroena da.
- Hazi Fundazioarekiko urteko mandatua ez da onartzen ekitaldia ondo aurreratua dagoen arte, eta, beraz, ordura arte dagozkion prestazioak gauzatzen dira horiek babesten dituen





tresna juridiko egokirik gabe. 2022ko ekitaldian mandatua azaroaren 8an onartu zen, eta egindako gastuaren zenbatekoa 402.362 euro izan zen.

- Kontratu txikien xedea aztertuta ikusi dugu, guztira 1,3 milioi euroren zenbatekoa egiten duten 31 jarduketa daudela, xedearen homogeneotasuna eta gastuaren zenbatekoa aintzat hartuta, gutxienez dagozkion prozedura ireki erraztu eta laburtu bidez egin behar ziratekeenak (ikus B.13.2).
- Gipuzkoako Foru Aldundiak 2022-23 denboraldirako kirol-klub batekin sinatutako publizitate-babesletzako kontratuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren irudia sustatzeko egindakoak (242.000 euro), ez du jasotzen kontratatutako prestazioen balorazioa, eta, ondorioz, ezin da egiaztatu haren baliokidetasuna ez eta onura ere.

VI.A.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

Alderdi orokorrak

- 130/2019 Errege Dekretuak, martxoaren 8koak, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publikotasuna arautzen dituenak, bestek beste, honako helburu hau ezartzen du: Europar Batasunak estatu-laguntzen arloan ezarritako informazio-eskakizunak bideratzea. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak agintzen du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera bidaltzeko obligazioa dagoela dirulaguntzen deialdi eta emakida-ebazpenei buruzko informazioa. 2015eko uztailaren 9an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Estatuko Administrazioaren eta EAEko Administrazioaren arteko Kooperaziorako Bitariko Batzordearen akordioa eta bertan erabaki zen Kontzertuaren Batzorde Mistoak beharrezko diren erabakiak bideratuko dituela informazio-bidalketa hau gauzatzeko. Txosten hau idatzi dugun datan ez dira erabaki horiek hartu eta GFAk ez du Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera arautegian aurreikusitako informazioa bidali.
- Bi dirulaguntzatan ikusi dugu onuradunak ez duela, eskagarria den kasuetan, diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik hiru eskaintza eskatu izana egiaztatu (dirulaguntza izendunen 13. Espedientea eta dirulaguntza zuzenen 11. espedientea) (ikus B.14).

Dirulaguntza izendunak (ikus B.14)

- 432.000 euroko dirulaguntza batean (1. espedientea), ez da aurkeztu gauzatu beharreko jardueren eduki ekonomikoa ezagutzeko ahalbidetuko duen aurrekonturik.
- GFAk 700.000 euroko dirulaguntza bat eman dio toki-erakunde bati obrak egiteko (5. espedientea), eta dirulaguntza osoa 2022ko ekitaldiko aurrekontuan erregistratu du; ordea, dirulaguntza eman zen data eta gauzatzeko aurreikuspenak aintzat hartuta, zenbatekoaren zati handiena konpromiso-kredituetan kontsignatu behar zatekeen.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak bidaiarien errepideko hiri-garraioko zerbitzua duten hamar udalerrirekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenen ondorioz (7. espedientea), urteko guztira 1,3 milioi euroren dirulaguntzak eman dituzte eta 4 urteko indarraldia dute; hitzarmen





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

horiek, baina, ez dute udalerrri bakoitzari esleitutako zenbatekoa justifikatzen duen adierazlerik, eta ez dute zehazten emandako dirulaguntzaren zenbatekoa nola justifikatu behar den. Hitzarmenek eskatutako eta aurkeztutako jarduera-memoriak orokorrak dira, eta ez dute aukerarik ematen emandako dirulaguntza zertarako erabili den egiaztatzeko.

- Erakunde publiko bati emandako bi dirulaguntzatan (8. eta 9. espedienteak), 2,3 milioi euro guztira, emakidaren unean ez da diruz lagundutako obren aurrekonturik jasotzen, ez eta horien finantzaketa-iturririk ere.
- Guztira 539.740 euroan emandako bi dirulaguntzatan (11. eta 12. espedienteak) 176.716 euroren aldaketak onartu dira apirilean; aldaketa horiek, ordea, 2022ko urtarrilaren 1etik aplikatzen ari ziren.
- Irabazi-asmorik gabeko erakunde bati dirulaguntza bat emateko aurkeztutako aurrekontuak (13. espedientea) 2,3 milioi eurorenak dira, eta GFak 320.000 euroko zenbatekoa ematen die. Justifikaziorako aurkeztutako fakturak ez dagozkio egindako jarduera osoari, emandako zenbatekoari baizik; beraz, guztizkoa justifikatzeko eskatu beharko litzateke.

Dirulaguntza zuzenak (Ikus B.14)

- Foru Gobernu Kontseiluak zuzeneko hiru dirulaguntza eman ditu (3, 4 eta 11 zk. espedienteak), guztira 310.012 euroren zenbatekoarekin; hala ere, dirulaguntza horien espezifikotasuna eta salbuespenezko edo ustekabeko egoeren ondorio ez direla aintzat hartuta, araudiak zuzeneko emakidarako aurreikusten duen beste moldea erabil zitekeen, aurrekontuetan modu izendunean sartuta, onuraduna, dirulaguntzaren xedea eta entrega zer helbururi dagoen lotua adieraziaz.
- Foru Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 13an erabaki zuen sektore publikoko fundazio bati 25 milioi euroko zuzeneko dirulaguntza bat ematea (5. espedientea), "Euskal Autonomia Erkidegoan teknologia kuantikoen ekosistema bat garatzea bultzatzeko enpresa teknologiko batekiko lankidetzaren planean" duen partaidetza zati batean finantzatzeko. Espedientean, ordea, ez dago zenbateko hori jardueren edo kontzeptuen arabera xehakatuta, aldean artean sinatutako hitzarmenean aurreikusitako xedapenak bete ahal izateko, zeinak diren hurrengo ordainketak egin aurretik gauzatutako inbertsioak egiaztatzeari eta justifikazio-kontu bat prestatzeari buruzkoak, eta bertan jasota utzi behar dira hasieran aurrekontuan sartutako zenbatekoak eta izandako desbideratzeak.



Deialdi bidez emandako dirulaguntzak (ikus B.14)

Mugikortasun elektrikoaren sektorea bultzatzeko "Smart Mobility Industry" dirulaguntzen deialdian (4. espedientea), guztira 682.500 euroren dirulaguntzak ematekoan, oinarrietan jasotako irizpideek, batez ere erakunde eskatzaileen profilari eta proiektuaren ezaugarriei buruzkoek, ez dute zehazten nola baloratuko diren, eta geroago garatzen dira, dirulaguntza ematen den unean.

Beste batzuk

Unibertsitate batek, GFAk eta Mubil Fundazioak hiru urtez ikerketa-jarduerak sustatu eta finantzatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatu dute; GFAk 1,2 milioi euroren gastu konprometituak erregistratu ditu transferentzia korronteen kontzeptuarekin, proiektuari esleitutako unibertsitateko ikasleak eta langileak finantzatzeko eta proiektuaren gastuetarako; hitzarmenak ordainketa-egutegi bat aurreikusten du, ez du arautzen, ordea, finantzatutako gastuen justifikazioa.

VI.A.4 LAGUNTZA-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKETAKO HITZARMENAK

Gizarte zerbitzuak ematean hitzarmenaren eta kontratu-programaren figura erabiltzeari dagokionez, azpimarratu behar dugu abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, dioela kontzertuaren araubidea dela gizarte zerbitzuak emateko lehentasunezko lankidetzak formula euskal administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean; ez da, baina, araudi bidez arautu, eta hitzarmenaren eta kontratu-programaren moldea gordetzen da irabazi asmorik ez duten gizarte-ekimeneko entitateentzat, betiere jardueraren edo zerbitzuaren berezitasunak, izaera presako edo berritzaile eta esperimenezkoak egokiago egiten badu hitzarmen eta kontratu-programa horiei kontzertuko araubidearen baldintzak ez aplikatzea. GFAk erregistratu duen hitzarmen eta kontratu-programatik eratorritako gastutik 43,5 milioi euro enpresa pribatuekin gauzatzen dira (ikus B.5.2).

VI.A.5 PERTSONALEKO GASTUAK

Aurrekontuaren eranskinean jasotako plantilla 2.227 plazakoa da (2.197 plaza 2021ean). Aurrekontuan jasotako plaza modura barne hartu dira lanpostuen zerrendaz besteko diren aldi bateko izaera duten kontratuak, besteak beste, errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 102 kontratu, suhiltzaileen ordezkapeneko 20 kontratu, Egogain egoitzarako 27 zaintzaile kontratu eta 31 pertsona Ticket Bairako (ikus B.3). Gure iritzira aurrekontu-plantillak soil-soilik plaza bati loturik dauden kontratazioak jaso behar ditu; alabaina, programako bitarteko aldi bateko kontratazioak, ordezkapenak, e.a. gastuaren aurrekontuko diru-izendapenaren zenbaketan soilik hartuko dira kontuan.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI.A.6 ONDAREA

Ondasun zerrenda orokorra ez du Foru Gobernu Kontseiluak onetsi, GLHren Ondareari buruzko 8/1996 F Aren 29. artikulua aurreikusten duen moduan.

VI.B FORU ERAKUNDE AUTONOMOAK

Kabiako Lanpostu zerrendak 23 lanpostu ditu, eta ez ditu udal egoitzetako lanpostuak jasotzen, zeinaren kudeaketa azken ekitaldietan bere gain hartu baitu (egiazko plantilla 2022ko ekitaldi itxieran 347 lanpostukoa da). Bestalde, Memoriak jasotzen plantilla organikoa eta aurrekontukoa 462 postukoa dela. Uste dugu LPZren dagozkion aldaketak onartu behar direla, udalek transferitutako langile guztiak islatzeko, eta Memoriak zuzentasunez eman behar duela LPZren eta plantillaren berri (ikus C.1).

VI.C MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK

Bidegi Saren banku-kontuetako funtsak erabiltzeko baimena pertsona bakar batek du. Funts publikoak ondo kontrolatzeko, sinadura mankomunatuak aplikatu behar dira.

VI.D FORU FUNDAZIOAK

Klima Aldaketa Fundazioak 242.000 euroren zuzeneko dirulaguntza bat eman dio kirol-klub bati, klima-aldaketaren aurkako borrokan sentsibilizatzeko eta prestakuntza emateko, baina ez da justifikatu ezinezkoa dela deialdi publiko bat egitea helburu horiek betetzeko.







ERANSKINAK

A. URTEKO KONTUAK

A.1 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

A. 2022KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA					Euroak milakotan		
Sarrerak	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Gauzat. kobrantsak	Kobr. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Zerga zuzenak	B7.1	2.520.300	-	2.520.300	2.626.392	2.626.392	-
2.- Zeharkako zergak	B7.1	2.802.684	183.534	2.986.218	2.946.662	2.946.662	-
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	B7.1	48.992	-	48.992	40.428	40.428	-
4.- Transf. eta dirulag. korront.	B8	147.029	65.227	212.256	220.956	157.104	63.852
5.- Ondare sarrerak		708	-	708	1.358	1.316	42
6.- Inbertsio errealen besterentzea		200	131	331	843	843	-
7.- Kapital dirulag. eta transf.....	B8	23.005	357	23.362	16.052	4.945	11.107
8.-Aktibo finantzarioak		37.306	14.437	51.743	474	299	175
9.-Pasibo finantzarioak.....		39.915	-	39.915	-	-	-
SARRERAK, GUZTIRA		5.620.139	263.686	5.883.825	5.853.165	5.777.989	75.176

Gastuak	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Gauzat. ordaink.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Pertsonaleko gastuak.....	B3	134.195	-	134.195	130.760	130.748	12
2.- Gastu korron. ondas. eta zerb.....	B4	151.653	5.422	157.075	150.798	133.400	17.398
3.- Gastu finantzarioak		7.300	(5.355)	1.945	1.747	1.326	421
4.- Transf. eta dirulag. korront.	B5	5.063.552	236.245	5.299.797	5.291.680	5.087.735	203.945
5.- Kontingentzia funtsa eta beste		100	(100)	-	-	-	-
6.- Inbertsio errealak	B6	158.171	954	159.125	108.507	85.201	23.306
7.- Kapital dirulag. eta transf.....	B5	59.048	23.830	82.878	72.971	22.911	50.060
8.-Aktibo finantzarioak	B9	6.205	2.690	8.895	6.839	6.633	206
9.-Pasibo finantzarioak.....	B10	39.915	-	39.915	39.915	39.915	-
GASTUAK, GUZTIRA		5.620.139	263.686	5.883.825	5.803.217	5.507.869	295.348

B. AURREKO EKITALDIETAKO SARRERA ETA GASTUEN HONDARRAK		Euroak milakotan		
	Hasierako zorra	Baliog.	(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
Zordunak.....	6.696	-	(6.689)	7
Hartzekodunak.....	(298.218)	2	298.052	(164)
AURREKONTU ITXIAK		2		





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Eskubide aitortuak		5.853.165
Obligazio aitortuak		(5.803.217)
EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA		49.948
Xahututako kredituak, atxiki gabeko diruzaintza geldikinarekin finantzatuak		8.362
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak.....		(36.763)
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak		1.954
DOIKETAK GUZTIRA		(26.447)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA DOITUA (1)		23.501
EKITALDI ITXIEN AURREKONTU EMAITZA (2)		2
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2)		23.503

D. DIRUZAINZA GELDIKINA		Eranskina	Euroak milakotan
Funts likidoak.....			209.796
Aurrekontuko zordunak.....	B7.2		75.183
Zordun ez-aurrekontukoak.....	B11		364.020
Aurrekontuko hartzekodunak			(295.512)
Hartzekodun ez-aurrekontukoak.....	B11		(21.536)
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA 2022.12.31N			331.951
Atxikitako finantzaketa-soberakina			(7.106)
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	B10		45.050
DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRI BATERATUA 2022.12.31N			369.895

E. KONPROMISO KREDITUEN EGIKARITZA		Euroak milakotan					
KAPITULUA	Eransk.	Azken aurrekontua				FASEAK	
		2023	2024	2025 eta hurr.	GUZTIRA	Baimendua	Erabilia
2.- Ondasun korrante eta zerbitz. gastuak	B4	4.536	692	120	5.348	4.313	4.278
4.- Transf. Eta dirulaguntza korranteak	B5	40.506	12.194	31.322	84.022	78.325	69.916
6.- Inbertsio errealak	B6	99.363	41.248	33.792	174.403	85.884	56.039
Transf. eta kapitalezko dirulag.	B5	47.147	22.096	13.729	82.972	63.167	63.167
8.-Aktibo finantzarioak		656	656	306	1.618	618	618
GUZTIRA		192.208	76.886	79.269	348.363	232.307	194.018





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

F. EGOERAREN BALANTZEA 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
	Eranskina	2022	2021		Eranskina	2022	2021
AKTIBO EZ KORRONTEA		3.071.519	3.011.967	ONDARE GARBIA		2.877.071	2.808.386
Ibilgetu ukiezina.....		40.112	41.134	Ekarritako ondarea.....		165.385	165.385
Ibilgetu materiala.....		2.785.970	2.820.703	Aurreko ekitaldien emaitza.....		2.615.485	2.570.328
Ibilgetuko inbertsioak.....		661	523	Ekitaldiaren emaitza.....		60.938	45.157
Taldeko enpresetan inberts. B9		150.707	137.608	Egozteko dauden ondare gehik..		35.263	27.516
Beste finantza inber. batzuk. B7.2		94.069	11.999				
				PASIBO EZ-KORRONTEA		429.770	256.280
				Epe luzeko zorrak..... B10		380.050	214.465
				Epe luzeko hornidurak..... B7.2		49.720	41.815
AKTIBO KORRONTEA		679.292	622.111	PASIBO KORRONTEA		443.970	569.412
Salgai dauden aktiboak.....		494	494	Epe laburreko hornidurak..... B7.2		93.310	95.685
Kudeaketa eragik. zordunak B7.2		104.982	114.262	Epe lab. zorrak..... B10		33.166	94.768
Beste zordun b.& kobr. knt. . B11		364.019	241.425	Kudeaketa eragik. hartzekod.....		295.512	298.218
Finantza inbertsioak epe lab.		1	-				
Eskud. eta best. akt. baliok. .		209.796	265.930	Hartzed. eta ordain. bst knt b..... B11		21.982	80.741
AKTIBOA, GUZTIRA		3.750.811	3.634.078	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.		3.750.811	3.634.078

G. 2022ko eta 2021eko ekitaldietako ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA				Euroak milakotan			
	Eranskina	2022	2021		Eranskina	2022	2021
Zerga-sarrerak.....		5.610.334	5.325.513				
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....		238.636	185.872				
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....		4.596	3.349				
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....		14.768	22.304				
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA		5.868.334	5.537.038				
Pertsonaleko gastuak.....		(131.411)	(124.655)				
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....		(5.379.025)	(5.107.784)				
Hornidurak.....		(1.831)	(1.690)				
Kudeaketa korronteko bst gstu batz.		(205.075)	(193.896)				
Ibilgetua amortizatzea..... B6		(77.899)	(73.805)				
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA		(5.795.241)	(5.501.830)				
KUDEAKETA KORRONTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI EZA)		73.093	35.208				
Balioaren narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa eta salgai dauden aktiboak besterenganatzearen emaitza.....		(1.249)	2.584				
Korrontek ez diren beste partida batzuk.....		(4.467)	(6.521)				
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK		67.377	31.271				
Sarrera finantzarioak.....		14.622	33.204				
Gastu finantzarioak.....		(1.747)	(1.759)				
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....		(19.314)	(17.559)				
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA		(6.439)	13.886				
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI EZA)		60.938	45.157				





A.2 FORU ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUAK

A.2.1 ULIAZPI FUNDAZIOA

A. 2022KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Kobran.	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	2.295	-	2.295	2.492	2.272	220
4.- Transferentzia korronteak	18.393	265	18.658	18.682	15.351	3.331
7.- Kapitalezko transferentziak	940	-	940	675	394	281
8.-Aktibo finantzarioak	200	65	265	50	50	-
SARRERAK, GUZTIRA	21.828	330	22.158	21.899	18.067	3.832

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Ordain. Ordain.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Pertsonaleko gastuak	C1	15.181	200	15.381	15.110	14.555	555
2.- Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontrat.		5.507	50	5.557	5.554	4.906	648
4.- Transferentzia korronteak		-	15	15	15	15	-
6.- Inbertsio errealak		940	65	1.005	622	495	127
8.-Aktibo finantzarioak		200	-	200	39	39	-
GASTUAK, GUZTIRA		21.828	330	22.158	21.340	20.010	1.330

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	Hasierako		(Kobran.)/ Ordaink.	Azken zorra
	zorra	Baliogab.		
Zordunak	252	(8)	(192)	52
Hartzekodunak	(1.337)	-	1.337	-
AURREKONTU ITXIAK		(8)		

C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINITZA GELDIKINA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	21.899
Obligazio aitortuak	(21.340)
EKITALDIAREN EMAITZA (1)	559
EKITALDI ITXIEN EMAITZA (2)	(8)
DOIKETA FINANTZARIOA (3)	(5)
AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3)	546
DIRUZAINITZA GELDIKINA 21.12.31N	3.649
DIRUZAINITZA GELDIKINA 21.12.31N	4.195





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D. EGOERAREN BALANTZEA 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n		Euroak milakotan			
	22.12.31	21.12.31			
AKTIBO EZ KORRONTEA	13.787	13.886	ONDARE GARBIA	18.021	17.576
Ibilgetu ukiezina.....	302	304	Ondarea	5.835	5.835
Ibilgetu materiala	13.450	13.537	Sortutako ondarea	10.997	10.562
Finan. inberts. epe luzera	35	45	Egozteko dauden ondare gehikunt.	1.189	1.179
AKTIBO KORRONTEA	6.091	5.540	PASIBO KORRONTEA	1.857	1.850
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	3.824	198	Epe lab. zorrak	46	41
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	39	41	Hartzekod. eta ord. beste kontu batz.....	1.811	1.809
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	2.228	5.301			
AKTIBOA, GUZTIRA	19.878	19.426	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	19.878	19.426

E. 2022ko eta 2021eko ekitaldietako ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
	2022	2021	
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	19.386	18.326	
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	2.410	2.287	
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....	82	98	
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	21.878	20.711	
Pertsonaleko gastuak	(15.110)	(14.051)	
Kudeaketa korronteko bst gstu batz.	(5.554)	(5.075)	
Ibilgetua amortizatzea.....	(750)	(711)	
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(21.414)	(19.837)	
KUDEAKETA KORRONTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI EZA)	464	874	
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	464	874	
Gastu finantzarioak.....	(15)	-	
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(14)	(17)	
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	(29)	(17)	
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	435	857	



**A.2.2 KABIA****A. 2022KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA** Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide kitat.	Kobran.	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	17.928	-	17.928	19.178	17.358	1.820
4.- Transferentzia korronteak	44.470	916	45.386	45.179	33.178	12.001
7.- Kapitalezko transferentziak	1.100	4.971	6.071	5.930	888	5.042
8.-Aktibo finantzarioak	5	-	5	-	-	-
SARRERAK, GUZTIRA	63.503	5.887	69.390	70.287	51.424	18.863

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Ordain. Ordain.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.- Pertsonaleko gastuak	C1	17.113	(1.540)	15.573	15.017	15.002	15
2.- Gastu korronteak		45.285	2.434	47.719	45.159	36.505	8.654
3.- Gastu finantzarioak		-	22	22	22	22	-
6.- Inbertsio errealak		1.100	4.971	6.071	2.434	1.111	1.323
8.-Aktibo finantzarioak		5	-	5	-	-	-
GASTUAK, GUZTIRA		63.503	5.887	69.390	62.632	52.640	9.992

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA Euroak milakotan

	Hasierako	(Kobran.)/ Ordaink.	Azken zorra	
	zorra			Baliogab.
Zordunak	1.991	(3)	(1.756)	232
Hartzekodunak	(5.569)	-	5.569	-
AURREKONTU ITXIAK		(3)		

C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	70.287
Obligazio aitortuak	(62.632)
EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	7.655
EKITALDI ITXIEN AURREKONTUKO EMAITZA	(3)
AURREKONTUAREN EMAITZA	7.652
DIRUZAINZTA GELDIKINA 21.12.31N	3.187
DIRUZAINZTA GELDIKINA 21.12.31N	10.839
Atxikitako finantzaketa-soberakina	(28)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA 22.12.31N	10.811
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak	(11)
DIRUZAINZTA GELDIKIN LIKIDOA 22.12.31N	10.800





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D. EGOERAREN BALANTZEA 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n			Euroak milakotan	
	22.12.31	21.12.31	22.12.31	21.12.31
AKTIBO EZ KORRONTEA	22.000	20.324	ONDARE GARBIA	32.597
Ibilgetu ukiezina.....	254	181	Emandako ondarea.....	18.054
Ibilgetu materiala.....	21.746	20.143	Aurreko ekitaldien emaitza.....	5.273
			Ekitaldiaren emaitza.....	9.270
AKTIBO KORRONTEA	21.706	9.381	PASIBO KORRONTEA	11.109
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	18.864	1.829	Epe lab. zorrak.....	25
Epe laburreko finantza inbertsioak.....	-	2	Hartzekod. eta ord. beste kontu batz.....	11.084
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	2.842	7.550		6.348
AKTIBOA, GUZTIRA	43.706	29.705	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	43.706
				29.705

E. 2022ko eta 2021eko ekitaldietako ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
	2022	2021	
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	51.109	39.137	
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak.....	19.122	16.087	
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....	41	23	
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	70.272	55.247	
Pertsonaleko gastuak.....	(15.047)	(11.434)	
Hornidurak.....	(801)	(374)	
Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk.....	(44.328)	(40.226)	
Ibilgetua amortizatzea.....	(758)	(410)	
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(60.934)	(52.444)	
KUDEAKETA KORRONTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI EZA)	9.338	2.803	
KUDEAKETA EZ-ARRUNTAREN EMAITZA	19	(2)	
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	(87)	(80)	
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	9.270	2.721	





A.3 MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEEN KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2022 eta 2021eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eranskina	IZFE, SA		Bidegi, SA		Etorlur, G.L. SA	
		2022	2021	2022	2021	2022	2021
AKTIBO EZ KORRONTEA		10.375	6.811	1.197.886	1.229.957	5.174	5.477
lbilgetu ukiezina.....	D1	3.038	2.770	1.197.723	1.229.794	-	-
lbilgetu materiala.....	D1	7.000	3.643	-	-	1.391	1.459
lbilgetuko inbertsioak.....	D2	-	-	-	-	3.783	4.018
Taldeko enpresetan inbertsioak.....		174	174	-	-	-	-
Epe luzeko inbertsio finantzarioak.....		135	195	163	163	-	-
Geroratutako zergagatiko aktiboak.....		28	29	-	-	-	-
AKTIBO KORRONTEA		13.149	13.520	117.756	89.529	12.125	11.731
Izakinak.....	D2	10	9	-	-	10.798	10.424
Merkatar. zord. eta kobr. beste kntu batzuk		7.269	3.570	11.864	11.216	278	93
Epe laburreko finantza inbertsioak.....	D3	-	-	37.224	34.869	-	1
Aldizkatzeak epe laburrera.....		200	350	-	-	9	5
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz.		5.670	9.591	68.668	43.444	1.040	1.208
AKTIBOA, GUZTIRA		23.524	20.331	1.315.642	1.319.486	17.299	17.208
ONDARE GARBIA		10.515	7.665	723.233	663.832	15.528	15.391
Eskrituran jasotako kapitala.....	B9	439	439	20.719	20.719	21.604	21.604
Erreserbak.....		2.333	2.145	665.639	631.170	373	373
Aurreko ekitaldien emaitzak.....		-	-	-	-	(7.517)	(7.547)
Ekitaldiaren emaitza.....		94	188	36.980	34.469	31	30
Funts propioak		2.866	2.772	723.338	686.358	14.491	14.460
Balio aldaketagatiko doiketak.....		-	-	(2.725)	(25.281)	-	-
Dirulag., dohaint. eta jasot. legat.		7.649	4.893	2.620	2.755	1.037	931
PASIBO EZ-KORRONTEA		3.123	2.147	527.974	592.770	641	645
Epe luzeko hornidurak.....	D1	-	-	24.584	22.255	-	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	D4	-	-	499.605	544.173	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak.....	D4	106	-	3.735	26.292	16	40
Beste ordainketa batzuk.....		-	-	50	50	-	-
Atzeratutako zergagatiko pasiboak.....		2.409	1.539	-	-	327	294
Aldizkakotzeak epe luzera.....		608	608	-	-	298	311
PASIBO KORRONTEA		9.886	10.519	64.435	62.884	1.130	1.172
Epe laburreko hornidurak.....		6	6	-	75	-	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	D4	-	-	49.922	50.082	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....		2.818	2.084	133	125	48	16
Merkatar. hartz. eta ordain. bte kntu batzuk		6.819	8.186	14.380	12.602	1.068	1.142
Aldizkatzeak epe laburrera.....		243	243	-	-	14	14
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		23.524	20.331	1.315.642	1.319.486	17.299	17.208





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		Euroak milakotan					
		IZFE SA		Bidegi SA		Etorlur G.L. SA	
	Eranskina	2022	2021	2022	2021	2022	2021
Negoio zifraren zenbateko garbia.....		32.063	28.767	155.408	133.854	-	5
Abiango sustap. eta eraik. izak. bariak.		-	-	-	-	8	9
Sarrera osagarriak eta kudeaketa korrontekoak		-	-	9.552	8.520	-	-
Hornidurak	D6	(12.373)	(10.335)	-	-	(63)	(54)
Ustiapeneko beste sarrera batzuk.....		-	3	-	-	964	952
Pertsonaleko gastuak	D5	(10.944)	(10.352)	(1.601)	(1.495)	(591)	(569)
Bestelako ustiapen gastuak	D6	(8.635)	(7.928)	(58.112)	(52.255)	(212)	(193)
Ibilgetua amortizatzea.....		(2.650)	(2.274)	(50.778)	(41.392)	(139)	(137)
Ibilgetu ez-finantz. dirulag. egoztea		2.650	2.274	137	3	60	60
Gehiegizko hornidurak.....		-	47	-	-	-	-
Beste emaitza batzuk		(9)	18	-	-	7	(41)
Ustiapenaren emaitza		102	220	54.606	47.235	34	32
Sarrera finantzarioak.....		-	-	-	-	-	-
Gastu finantzarioak.....	D4	-	-	(17.626)	(12.766)	-	-
Emaitza finantzarioa		-	-	(17.626)	(12.766)	-	-
Emaitza zerga aurretik		102	220	36.980	34.469	34	32
Mozkinen gaineko zerga.....		(8)	(32)	-	-	(3)	(2)
EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA							
JARRAITUETATIK ERATORRITAKOA		94	188	36.980	34.469	31	30
EKITALDIAREN EMAITZA		94	188	36.980	34.469	31	30



A.4 FORU FUNDAZIOEN KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZE LABURTUAK 2022 eta 2021eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Kiroldgi		Sueskola		Adinberri		Klima aldaketa		Ziur		Mubil	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
	AKTIBO EZ-KORRONTEA	5	5	1.533	1.602	520	395	101	114	784	748	239
Ibilgetu ukiezina	-	-	1.447	1.513	507	269	23	29	304	78	25	17
Ibilgetu materiala	-	-	86	89	13	126	54	61	476	666	189	233
Finantza inbertsioak epe luzera.....	5	5	-	-	-	-	24	24	4	4	25	24
AKTIBO KORRONTEA	520	787	252	114	250	349	554	363	761	1.139	8.161	5.577
Izakinak	-	-	13	11	-	-	-	-	-	-	-	-
Erabiltz. eta jard. pr. bst. zordun batz.	11	3	130	53	-	-	-	-	-	-	-	-
Merkat. zord. eta kobratz bestel. knt.	18	250	94	37	180	196	352	217	445	-	2.622	5.000
Aldizkatzeak epe laburrera	380	125	5	5	-	-	-	-	55	51	-	-
Eskud. & b. aktibo likido baliok. batz.	111	409	10	8	70	153	202	146	261	1.088	5.539	577
AKTIBOA, GUZTIRA	525	792	1.785	1.716	770	744	655	477	1.545	1.887	8.400	5.851
ONDARE GARBIA	519	715	1.476	1.528	588	675	269	124	1.408	1.705	8.240	5.727
Fundazioaren zuzkidura.....	30	30	30	30	30	30	30	30	30	30	30	30
Erreserbak	598	598	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Aurreko ekitaldietako soberakinak	(489)	(489)	(71)	(72)	-	-	(15)	(15)	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza	-	-	14	1	-	-	216	-	-	-	-	-
Funts propioak	139	139	(27)	(41)	30	30	231	15	30	30	30	30
Dirulag., dohaint. eta jasot. legat.....	380	576	1.503	1.569	558	645	38	109	1.378	1.675	8.210	5.697
PASIBO EZ-KORRONTEA	-	-	-	-	12	12	184	235	11	3	5	-
Epe luzeko bestel. zorrak	-	-	-	-	12	12	184	235	11	3	5	-
PASIBO KORRONTEA	6	77	309	188	170	57	202	118	126	179	155	124
Epe laburreko hornidurak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Onuradunak eta hartzekodunak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Epe lab. zorrak	-	-	120	80	-	-	1	14	-	83	-	-
Merkat. hartz. & ordain. bestel. kntu.	6	77	189	108	170	57	201	104	126	96	155	124
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.	525	792	1.785	1.716	770	744	655	477	1.545	1.887	8.400	5.851





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. EMAITZEN KONTU LABURTUAK, 2022 eta 2021eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Kiroldgi		Sueskola		Adinberri		Klima aldaketa		Ziur		Mubil		
	Eranskina		2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	
	2022	2021											
Sustapenen, babesletzen sarrerak	185	180	84	78	-	-	-	-	-	-	-	-	
Dirulaguntzak, dohaintz. eta legat.	4.202	2.929	630	575	1.059	953	1.212	707	1.201	790	1.647	1.476	
Hornidurak	-	-	3	3	-	-	-	-	-	-	-	-	
Merkat. jard. salmenta eta sarrerak....	-	-	728	558	-	-	-	-	-	-	-	-	
Jard. bst. sarr. b. eta gehieg. hornid...	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
Pertsonaleko gastuak	E1	-	-	(707)	(656)	(303)	(290)	(351)	(332)	(279)	(318)	(344)	(245)
Laguntza monetarioengatik gastuak	E2	(4.142)	(2.954)	-	-	-	(359)	(45)	(45)	-	-	(35)	(325)
Jardueraren bst. gst. btz. eta best.	E3	(245)	(151)	(707)	(545)	(756)	(304)	(660)	(319)	(920)	(472)	(1.323)	(937)
Ibilgetua amortizatzea	-	-	(106)	(101)	(56)	(26)	(36)	(28)	(228)	(172)	(53)	(44)	
Ekit. soberak. transf. kap. dirulag.....	-	-	92	92	56	26	96	17	228	172	108	75	
Jardueraren soberakina	-	4	17	4	-	-	216	-	2	-	-	-	
Gastu finantzarioak	-	(4)	(3)	(3)	-	-	-	-	(2)	-	-	-	
Soberakina zerga aurretik	-	-	14	1	-	-	216	-	-	-	-	-	
EKITALDIKO SOBERAKINA	-	-	14	1	-	-	216	-	-	-	-	-	
Ondare garbian zuzen. jasot. sarr. – gast.	380	576	25	25	(31)	338	25	43	(297)	322	2.621	5.518	
Ekitald. soberakinera egindako birsailk.....	(581)	-	(91)	(92)	(56)	(26)	(96)	(17)	(228)	(172)	(108)	(75)	
Ondare garbiaren bariazioa zuzenean ondare garbian egotzitako sarrera eta gastuengatik	(201)	576	(66)	(67)	(87)	312	(71)	26	(525)	150	2.513	5.443	
Fundazioaren zuzkiduran bariazioak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
EKITALDIAN ONDARE GARBIAREN BAR.	(201)	576	(52)	(66)	(87)	312	145	26	(525)	150	2.513	5.443	





A.5 GIPUZKOAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN KONTU BATERATUAK

A. 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO BATERATUA		Euroak milakotan	
KAPITULUA	Behin betiko aurrekontua	Eskubideak/Obligazioak	
Zerga zuzenak	2.520.300	2.626.392	
Zeharkako zergak	2.986.218	2.946.662	
Tasak eta bestelako sarrerak	69.808	62.772	
Transferentzia korronteak	216.152	222.194	
Ondare-sarrerak	150.996	174.245	
Inbertsio errealen besterentzea	331	841	
Kapitalezko transferentziak	29.751	15.892	
Aktibo finantzarioen bariazioa	60.330	584	
Pasibo finantzarioen bariazioa	39.915	-	
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA	6.073.801	6.049.582	
Pertsonaleko gastuak	181.199	176.006	
Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa	287.552	258.797	
Interesak	22.997	23.276	
Transferentzia korronteak	5.232.126	5.222.901	
Inbertsio errealak	188.140	133.511	
Kapitalezko transferentziak	68.387	56.865	
Aktibo finantzarioen bariazioa	9.183	6.878	
Pasibo finantzarioen bariazioa	84.217	84.217	
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA	6.073.801	5.962.451	
AURREKONTUAREN EMAITZA BATERATUA 2022		87.131	

B. BALANTZE BATERATUA 2022 eta 2021eko abenduaren 31n						Euroak milakotan	
AKTIBOA	22.12.31	21.12.31	PASIBOA	22.12.31	21.12.31		
AKTIBO EZ-KORRONTEA	4.263.564	4.231.142	ONDARE GARBIA	3.629.155	3.486.232		
Ibilgetu ukiezina	46.470	32.899	Ekarririkako ondarea	165.465	165.465		
Ibilgetu materiala	4.035.525	4.104.467	Sortutako ondarea	3.428.410	3.315.668		
Ibilgetuko inbertsioak	4.443	4.541	Estaldura eragiketak	(2.725)	(25.281)		
Taldeko enpresetan partaidetza	82.802	76.910	Egozteko dauden ondare gehikunt.	38.005	30.380		
Finantza inbertsioak epe luzera	94.296	12.296					
Geroratutako zergagatiko aktiboak ...	28	29	PASIBO EZ-KORRONTEA	961.675	852.094		
			Epe luzeko hornidurak	74.304	64.070		
			Epe luzeko zorrak	887.371	788.024		
AKTIBO KORRONTEA	829.658	751.600	PASIBO KORRONTEA	502.392	644.416		
salgai dauden aktiboak	494	494	Epe laburreko hornidurak	93.316	95.766		
Izakinak	10.821	10.444	Epe lab. zorrak	86.279	147.446		
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	483.991	369.807	Hartzekod. eta ord. beste kontu batz ...	322.541	400.948		
Finantza inbertsioak epe motzera	37.265	34.913	Aldizkatzeagatiko doikun	256	256		
Aldizkatzeagatiko doikun	650	536					
Eskud. eta b. aktibo lik. baliok. batz. .	296.437	335.406					
AKTIBOA, GUZTIRA	5.093.222	4.982.742	PASIBOA, GUZTIRA	5.093.222	4.982.742		





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTU BATERATUA, 2022 eta 2021	Euroak milakotan	
	2022	2021
Zerga-sarrerak.....	5.610.334	5.325.513
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	239.737	186.452
Salmenta garbiak, zerbitzu emakida, izakinen bariak. eta ibilgeturako egindako lanak	190.422	160.210
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.....	24.445	30.961
Hornidura soberakinak.....	-	47
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	6.064.938	5.703.183
Pertsonaleko gastuak	(176.687)	(164.397)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(5.293.984)	(5.036.596)
Hornidurak	(15.044)	(12.392)
Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk.	(302.203)	(277.864)
Ibilgetua amortizatzea.....	(133.452)	(119.101)
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(5.921.370)	(5.610.350)
KUDEAKETA KORRONTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI EZA)	143.568	92.833
Ibilgetuaren emaitza	(1.051)	2.662
Ekitaldi itxien emaitza	(4.459)	(6.587)
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	138.058	88.908
Sarrera finantzarioak.....	14.622	33.204
Gastu finantzarioak.....	(19.394)	(14.533)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(19.414)	(17.656)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	(24.186)	1.015
Mozkinen gaineko zerga.....	(11)	(34)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI EZA)	113.861	89.889





A.6 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

Apirilaren 27ko 2/2020 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan, hurrenez hurren.

2020ko otsailaren 11ko Ministroen Kontseiluak 2021-2023 aldirako erabaki zuen aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak egokitzea eta Estatuaren aurrekontuaren gastu ez-finantzarioaren muga ezarri zuen, bai eta administrazio publikoentzat konputagarria den gastuen bariazioa ere. 2020ko martxotik aurrera, COVID-19tik eratorritako munduko pandemiaren egoera dela eta, Gobernuak ezohiko hainbat neurri hartu zituen osasun-larrialdiari aurre egiteko eta ekonomiaren eta gizartearen susperraldia bultzatzeko. Azkenik, 2020ko urriaren 6ko Ministroen Kontseiluak 2020an eta 2021ean zerga-arauak etetea erabaki zuen. Horrekin guztiarekin, otsailean onartutako jarraibideak eta egonkortasun-helburuak bertan behera utzi ziren.

Ministroen Kontseiluak 2021eko uztailaren 27an erabaki zuen 2022rako arau fiskalen etete-egoerari eustea, eta Diputatuen Kongresuak berretsi egin zuen erabaki hori.

2021eko urriaren 15ean, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak 2022rako aurrekontu-egonkortasunaren helburuak adostu zituen, eta GFaren sektore publikorako 2022rako 31,5 milioi euroko defizit-helburua ezarri zuen; GFaren sektore publikoaren 2022ko likidazioak 108,2 milioi euroko superabita erakutsi du.



B. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

B.1 ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDI EZARGARRIA

GFA lurralde izaera duen administrazio publiko bat da eta haren eskumenak azaroaren 25eko 27/1983 Legearen I. Tituluan zehazten dira, EAEko erakunde komunen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoan, hain zuzen ere; eskumen horiek nagusiki dira Estatuarekin hitzartutako zergak kudeatzea eta eskumen eskusiboko edo beste erakunde batzuekin partekatutako zerbitzu jakin batzuk ematea: errepide-sarea, sustapen ekonomikoa, gizarte-ongizatea, nekazaritza, kultura eta tokiko sektorea gainbegiratzea eta laguntza ematea alderdi jakin batzuetan.

GFAk bi erakunde autonomo, merkataritzako hiru foru sozietate eta sei foru fundazio ditu 2022ko abenduaren 31n, beste enpresa eta entitate batzuetan partaidetza gutxienekoak izateaz gain, B.9an zehazten den moduan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak 2022an indarreko arautegiak agintzen duen egitura eta informazioa barne hartzen du eta Gobernu Kontseiluak 2023ko uztailaren 26an onetsi zuen, eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin betiko onetsi zain dago.

Ekitaldian zehar ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa.
- 51/2012 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, GLHko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 6/2021Foru Araua, abenduaren 22koa, 2022ko ekitaldirako GLHko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, GLHko dirulaguntzei buruzkoa.
- 8/1996 Foru Araua, uztailaren 9koa, GLHko Ondareari buruzkoa.
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, GLHko Zergei buruzkoa.
- 38/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, GLHko Zerga-bilketaren Erregelamendua onartzen duena.





B.2 AURREKONTUA, AURREKONTUKO ALDAKETAK ETA KONPROMISO-KREDITUAK

B.2.1 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Honekin baterako taulak gastu kapitulu bakoitzeko 2022ko ekitaldiko kredituen bariazioa xehakatzen du, ekitaldian onartutako aurrekontuko aldaketen ondorioz:

	Euroak milakotan					
	Kreditu gehigarriak	Gaikuntzak	Kreditu txertaketak	Transf. eta egokitz. tekn.		Guztira
				Positiboak	Negatiboak	
Gastu korrontek ondasun eta zerb.	-	490	1.125	8.010	(4.203)	5.422
Gastu finantzarioak.....	-	-	-	-	(5.355)	(5.355)
Transferentziak eta dirulag. korrontek.....	-	241.270	25	24.125	(29.175)	236.245
Kontingentzia funtsa.....	-	-	-	-	(100)	(100)
Inbertsio errealak.....	5.950	1.518	7.124	12.009	(25.647)	954
Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.....	-	5.971	13	28.545	(10.699)	23.830
Aktibo finantzarioak.....	200	-	-	8.700	(6.210)	2.690
GASTUAK, GUZTIRA	6.150	249.249	8.287	81.389	(81.389)	263.686

263,7 milioi euroren aurrekontu-aldaketak batez ere honako hauekin finantzatzen dira: zeharkako zergengatik aurrekontu egindako diru-sarreraren aldean bildutako 183,5 milioi euroekin; transferentzia arruntengatik eskuratutako 65,2 milioi euroren diru-sarrera handiagoekin; eta 14,4 milioi euroren diruzaintzako geldikinarekin.

B.2.2 KONPROMISO-KREDITUAK

Honekin baterako taulak gastu kapitulu bakoitzeko 2022ko ekitaldiko konpromiso kredituen bariazioa xehakatzen du, ekitaldian onartutako aldaketen ondorioz:

	Euroak milakotan				
	Hasierako aurrekontua	Gobernu Kontseilua	Transf. eta egokitz. teknik.		Azken aurrek.
			Positiboak	Negatiboak	
Gastu korrontek ondasun eta zerb.....	3.045	1.821	794	(312)	5.348
Transferentziak eta dirulag. korrontek.....	82.210	2.216	3.942	(4.346)	84.022
Inbertsio errealak.....	167.794	20.873	20.317	(34.581)	174.403
Kapitalezko transferentziak eta dirulagun.....	43.916	24.870	25.448	(11.262)	82.972
Aktibo finantzarioak.....	1.000	618	-	-	1.618
GASTUAK, GUZTIRA	297.965	50.398	50.501	(50.501)	348.363

Gobernu Kontseiluak % 10 handitu ditzake aurrekontuen foru arauak onartutako konpromiso-kredituak, eta muga horretatik kanpo geratzen dira berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-planei eta proiektu estrategikoei lotuta sortutako konpromiso-kredituak (31,1 milioi euro).



B.3 PERTSONALEKO GASTUAK

Ekitaldi itxieran kontzeptu eta plantillaren arabera xehakatutako pertsonaleko gastuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan			
	GASTUA		Plantilla erreala 12-31n	
	2022	2021	2022	2021
Goi kargudunak.....	795	768	9	9
Behin-behineko langileak eta zuzendariak.....	5.479	5.179	78	77
Funtzionarioak.....	93.414	87.958	1.904	1.898
Lan kontratuko langile finkoak.....	1.234	1.232	15	30
Aldi baterako lan kontratuko langileak.....	697	711	18	23
Ordainsariak eta plantilla	101.619	95.848	2.024	2.037
Gizarte Segurantzza.....	24.688	23.905		
Elkarkidetza.....	1.629	1.583		
Erretiro sariak.....	1.759	1.725		
Beste gizarte gastu txiki batzuk.....	1.065	1.071		
PERTSONALEKO GASTUAK, GUZTIRA	130.760	124.132		

Ordainsariak

2002ko martxoaren 15ean eta azaroaren 8an, Foru Gobernu Kontseiluak erabaki zuen GFAREN zerbitzuko langileen ordainsariak % 2 eta % 1,5 gehitzea, hurrenez hurren, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legean eta urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kalte-ordainak

2022ko ekitaldian eta urriaren 5 arte, GFAk 49 langileri guztira 1,8 milioi euroren sariak ordaindu dizkie alde zuzeneko erretiroagatik, banako 40.000 euroren mugarekin, GFAko Giza Baliabideetako Plan Estrategikoari jarraikiz eta sari horiek errenta salbuetsi modura aitortu ditu.

2016ko ekitaldian egin zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren aldaketak agintzen du langilearen lanuzteagatik kalte-ordainak salbuetsitako errentatzat hartzeko, administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoetatik eratorritakoak, Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 51. artikuluan aurreikusitako kausaren bat izan behar dutela oinarri, zeinak kaleratze kolektiboa definitzen baitu kausa ekonomiko, tekniko, antolaketazko edo ekoizpenekoetatik eratorritako modura. Giza Baliabideen Plan Estrategikoa GFAko langile guztiei aplikatzen zaie, erretirorako legezko adinari dagokionez antzinatasunari eta adinari dagozkion betekizun jakin batzuk betetzen baditu; hori dela eta, ez dira kaleratze kolektiboarekin pareagarri diren kausak gertatu eta honenbestez, ez dira Foru Arauan errenta salbuetsizat jotzeko finkatutako baldintzak betetzen.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bestalde, 2022ko martxoan eta apirilean, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak epai bana eman du, erretiro aurreratuaren primak legezko estaldurarik gabeko ordainsariak direla ezartzen dutenak.

2022ko Foru Gobernu Kontseiluak erabaki zuen baliogabe uztea erretiro aurreratuari buruzko neurriak eta 3 hilabete osagarriko epe bat ezarri zuen erabaki horrek ondorioak eragiteko. Erabaki horren aurka hainbat errekurtsio jarri ziren EAEANaren aurrean, baina ebatzi gabe daude txosten hau idatzi dugun datan.

Plantilla

Hona hemen 2022ko ekitaldi itxieran LZren, aurrekontuko plantillaren eta egiazko plantillaren egoera:

	LPZ	Aurrek. Plantilla	Plantilla Erreal
Funtzionarioak eta lan kontratuko langile finko eta aldizkakoak.....	1.902	2.125	1.919
Behin-behineko langilea.....	41	40	43
	1.943	(*)2.165	1.962
Goi kargudunak eta zuzendariak	E/E	44	44
Aldi baterako lan kontratuko langileak.....	E/E	18	18
GUZTIRA		2.227	2.024

(*) Aurrekontuko plantilla modura barne hartu dira aldi baterako izaera duten kontratuak (azpimarratzekoak dira: errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 102 kontratu, suhiltzaileak ordezkatzeko 20 kontratu, Egogain egoitzarako 27 zaintzaileen kontratu eta 31 Ticket Bai langileen kontratu).

2022ko ekitaldian, 2022ko ekitaldirako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu da (39 plaza), bai eta aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuari dagokion Enplegu Publikoaren Eskaintza ere (422 lanpostu), enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera. 2022ko abenduaren 31n egonkortze prozesuari dagozkionak soilik deitu dira eta GAOn deialdia 2022ko abenduaren 29an eman da argitara.



B.4 GASTU KORRONTEAK ONDASUN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun eta zerbitzuetako gastu korronteak jarraian xehakatutakoak dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	Obligazioak		D-O	Konpr.kred. D fasea
	2022	2021	2022	
Errentamenduak	2.560	2.710	44	-
lbilgetua konpondu eta zaintzea	5.050	5.110	149	19
Hornidurak	9.029	9.037	58	-
Komunikazioak	2.612	2.749	-	-
Beste kontzeptu txikiago batzuk	5.219	5.092	70	-
<u>Kanpoko enpresek egindako lanak</u>				
Laguntza emateko zerbitzuak (*) (ikus B.5.2).....	73.407	65.815	28	-
Azterlanak eta irizpenak.....	8.912	8.307	458	2.299
Informatika zerbitzuak	11.574	11.316	127	-
Eraikinak garbitzea.....	4.927	5.080	7	-
Kontratu soziokulturalak eta kiroletakoak.....	9.132	9.913	86	58
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	9.256	6.698	176	456
Beste azpikontzeptu txikiago batzuk	9.120	8.706	77	1.446
KAPITULUA GUZTIRA	150.798	140.533	1.280	4.278

(*) Laguntza-zerbitzuek eragindako gastuek 2022ko ekitaldian kapituluko gastu osoaren % 48,7 egin dute (% 46,8, 2021ean).





B.5 EMANDAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZA KORRONTE ETA KAPITALEZKOAK

Hona hemen kapitulu hauei dagokienez, ekitaldian aitortutako eta gauzatzeko dagoen erabilitako gastuaren xehakapena; baita, datozen ekitaldietarako erabilitako konpromisoak ere:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan					
	KORRONTEAK			KAPITALEZKOAK		
	Obligazioak	D-O	Konpr. K. D fasea	Obligazioak	D-O	Konpr. K. D fasea
Erakunde konpromisoak (ikus B.5.1)	4.789.812	-	-	-	-	-
Izendunak.....	19.090	94	41.608	2.247	706	713
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	189	-	110	375	1.130	2.450
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	7.454	333	4.369	7.151	274	1.285
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	6.066	-	-	-	-	-
Etterako laguntza zerbitzua	8.193	-	-	-	-	-
Gipuzkoako toki entitateak	40.992	427	46.087	9.773	2.110	4.448
Izendunak.....	9.454	6	31	2.150	-	300
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	130	-	-	-	-	-
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	19.589	86	11.740	13.003	729	14.162
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	43.499	-	-	-	-	-
Enpresa pribatuak	72.672	92	11.771	15.153	729	14.462
Izendunak.....	21.653	-	1.789	2.786	-	763
Gobernu edo Diputatuen Konts. bidez emandakoak ..	702	-	121	1.028	-	13.814
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	13.828	392	7.165	13.602	33	6.336
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2)	104.025	-	-	-	-	-
Gizarte prestazioak	89.885	-	-	-	-	-
Irabazi asmorik gabeko familiak eta erakundeak	230.093	392	9.075	17.416	33	20.913
Uliazpi Fundazioa.....	18.658	-	-	674	-	82
Kabia	44.981	-	-	5.982	-	-
IZFE SA	-	-	-	6.275	-	-
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.....	770	-	-	200	-	-
Kirolgi Fundazioa	4.000	-	-	-	-	-
Sueskola Fundazioa.....	160	-	-	25	-	-
Adinberri Fundazioa.....	775	-	-	180	-	-
Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fundazioa.....	1.057	-	-	25	-	-
Ziur Fundazioa	917	-	-	159	-	-
Mubil Fundazioa	1.646	-	-	2.621	-	-
BSTK Fundazioa	-	-	-	2.000	-	-
Erak. auton. eta Foru Sekt. Publikoari transfer.	72.964	-	-	18.141	-	82
Txartel bakarra: Kalte-ordainak	49.541	484	-	-	-	-
Udalerrientzat 684/2021 EDren funtsa	25.147	-	-	-	-	-
Batzar Nagusiak	7.086	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritz.....	1.765	-	-	-	-	-
Euskal Trenbide Sarea	-	-	-	-	7	6.999
Ikerbasque (dirulaguntza zuzena).....	-	-	-	10.000	-	15.000
Bestel. transferentziak eta dirulaguntzak.....	1.608	350	2.983	2.488	-	1.263
Bestel. transferentziak eta dirulaguntzak	85.147	834	2.983	12.488	7	23.262
KAPITULUA GUZTIRA	5.291.680	1.745	69.916	72.971	2.879	63.167



B.5.1 ERAKUNDE KONPROMISOAK

Kontzeptu honen pean honako hauek barne hartzen dira: GFAk Kupo kontzeptuan Estatuari egiten dizkion ekarpenak, bere gain hartu gabeko karga eta sarreren arteko aldeagatik; EAEko Administrazio Orokorrari aurrekontuak finantzatzeko ekarpen modura egiten dizkionak; eta udalei Udal Finantzaketarako Foru Funtz modura egindakoak. EAERI eta udalei egindako ekarpenak GFAk itunpeko zergen kontzeptuan egindako diru-bilketaren banaketa modura kalkulatu dira eta honenbestez, zenbatekoa diru-bilketa horri hertsiki loturik dago.

	Euroak milakotan			
	GASTUA		SARRERA	
	2022	2021	2022	2021
ERAKUNDE KONPROMISOAK				
Ekitaldiko Kupoa	310.196	334.599	-	-
Aurreko ekitaldiko kupoa likidatzea	1.661	-	-	92.165
ESTATUARI KUPOA	311.857	334.599	-	92.165
Ekarpen orokorra	3.709.948	3.417.307	-	-
Ertzaintza	640	11.103	350	-
Eskumen berriak	157.855	198.474	-	-
Doiketa funts orokorra	9.597	8.093	85.929	-
2.. artikuluko politikak finantzatzea	11.690	-	-	-
EAE-RI EKARPENAK	3.889.730	3.634.977	86.279	-
Udal Finantzaketarako Foru Funtza	588.225	582.048	-	-
UDALEI EKARPENAK	588.225	582.048	-	-
ERAKUNDE-KONPROMISOAK GUZTIRA	4.789.812	4.551.624	86.279	92.165

Hona hemen 2022ko ekitaldiko erakunde konpromisoen likidazioari buruzko informazioa:

- 2023ko maiatzean 2022ko ekitaldiko behin betiko kupoa kitatu da eta GFAk 101,4 milioi euroren ordaintzeko saldo bat du, 2023an gastu modura erregistratu dena.
- 2022ko ekitaldiko Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen likidazioak, FPEKk 2023ko otsailean egindakoak, Doiketa Funtz Orokorrean 85,9 milioi euroren likidazioa eragin du GFaren alde; GFAk 9,6 milioi euroren ekarpena egin du.
- 2022ko ekitaldian erregistratu diren Udal Finantzaketarako Foru Funtzari egindako ekarpenak 588,2 milioi eurorenak izan dira eta horiek 2022ko likidazioa barne hartzen dute, 19,9 milioi euroren zenbatekoduna.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.5.2 LAGUNTZA-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKAKO HITZARMENAK

GFAk 2022ko ekitaldian gizarte zerbitzuetan egindako gastua, gastu orokorrak barne hartu gabe, era honetara zati-banatzen da:

- Laguntza-zerbitzuak, “Ondasun korrante eta zerbitzuen kontratazioa” kapituluaren erregistratuak 73,4 milioi euroren zenbatekoarekin. Egindako gastua ondasun eta zerbitzuen kontratazioaren araudiak arautzen du eta GFaren jabetzako zentroetan emandako zerbitzuei dagokie (ikus B.4).
- Gizarte zerbitzuetako hitzarmenak eta kontratu-programak, “Transferentzia korranteak” kapituluaren erregistratuak, 153,6 milioi euroren zenbatekoarekin. Gastua GFarenaz besteko zentroetan egindako zerbitzualdiari dagokio.

Hona hemen hitzarmen eta kontratu-programako gastuaren xehakapena itunpeko jardueraren eta jarduera zerbitzu-emaiaren arabera berezia:

	Euroak milakotan			
	GUZTIRA	Toki entitateak	Enpresa pribatuak	Irabazi asm. gabeko erak.
Adinekoen egoitzak	54.502	350	27.339	26.813
Desgaitasuna	46.334	72	6.172	40.090
Gizarteratzea (ostatu ematea, progr. eta egun. zentr.)	19.552	-	-	19.552
Adinekoen eguneko zentroak	14.954	5.310	5.475	4.169
Adingabeen zaintzarako zentroekiko hitzarmena	14.384	-	4.392	9.992
Adinekoei arreta sozio-sanitarioa eta zaintza	3.320	-	-	3.320
Beste txiki batzuk	544	334	121	89
GIZARTE ETA LAGUNTZA PRESTAZIOAK GUZTIRA	153.590	6.066	43.499	104.025

Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko eta 2022ko ekitaldietarako onartutako prezioen berrikuspenak honako hauek dira:

	Euroak milakotan			
	% igoera		Zenbat.	
	2022	2021	2022	2021
Mendekotasun eta ezintasun egoeran dauden zaharrentzako kontratuak	6,47-6,63	0,5	2.190	108
Babesgabe, gizarte-bazterketa eta buru-nahastea duten adingabeak artatzeko kontr.	6,3	0,8	1.530	122
Mendekot. eta ezint. egoeran dauden adinekoentzako hitzarm. eta kont.-program.	6,47-6,63	0,5	7.255	586
Babesgabe, giz.-bazterketa eta buru-nahastea duten adingabeak artatz. hitzarm....	6,3	0,8	2.428	251
Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta integraleko kontratuen prezio berriak ...	6,3	-	101	-
Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta integralaren tarifa berriak	6,3	-	1.997	-
GUZTIRA			15.501	1.067



B.6 INBERTSIO ERREALAK ETA IBILGETUA

Hona hemen Inbertsio errealen aitortutako obligazio, ekitaldian egikaritzeko dauden konpromiso eta datozen ekitaldietako hitzartutako kredituen xehakapena:

KONTZEPTUA	Obligazioak	Euroak milakotan	
		D-O 2021	Konpr.kred. D fasea
Orubeak eta landalur-finkak.....	257	54	-
Eraikinak.....	9.625	7.819	8.287
Errepideak, bideak eta basoetako pistak.....	68.350	7.023	34.971
Aplikazio informatikoak.....	13.101	2.462	6.844
Obrak eta instalazioak besteren ibilgetuan.....	7.143	550	2.632
Obrak eta instalazioak lagapenean jasotako ibilgetuan.....	3.352	178	2.509
Beste kontzeptu batzuk.....	6.679	86	796
KAPITULUA GUZTIRA	108.507	18.172	56.039

Aurrekontuan aitortutako 108,5 milioi euroren obligazioak ondare-kontabilitateko kontzeptu esanguratsuenetan islatzen dira, era honetara:

- Ibilgetu material eta ukiezinako altak, guztira 44,3 milioi euroren zenbatekoan. Alta horiek, 2022ko ekitaldiko 77,9 milioi euroren amortizazioarekin batera, Egoera Balantzeko Ibilgetuko partiden kostu garbiaren murrizketaren osagai nagusia dira, 35,6 milioi euroko zenbatekoarekin.
- Ekonomia-ondareko emaitza-kontuan erregistratzen diren inbertsio errealak; horietan aipatzekoak dira errepideen konponketa 56,3 milioi euroren zenbatekoan eta besteren ibilgetuan egindako inbertsioak, 9,2 milioi eurorenak (ikus B.12).

2022ko ekitaldiaren itxieran 2.826,1 milioi euroren saldoa duen GFaren ibilgetu material eta ukiezina ez dago inbentario batean xehakapen individualizatuarekin euskarritua, guztira 693,4 milioi euro, honako kontzeptu hauetan:

- Erabilera orokorrerako emandako azpiegiturak, zeinak 240 milioi euroren amortizazio-kostu garbiaren balioa duten, 2012ko ekitaldia baino lehenago gauzatu ziren eta abenduaren 28ko 51/2012 FD indarrean sartu ostean –zeinaren bidez GLHren Foru Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartu baitzen- ibilgetu materialera eskualdatu ziren. Ez dago saldo hau euskarrituko duen inbentariarik eta ondasunen izaera aintzat hartuta, komenigarria litzateke zuzentzea.
- GFAk gauzatutako obra hidraulikoak: uren zerbitzua kudeatzen duten mankomunitateekin eta partzuergo batekin finantzatzen dira, zeinak azpiegituren entitate titular baitira. GFaren ibilgetuan kostu garbia 400,9 milioi euro da.
- 52,5 milioi euroren batez besteko kostua duten ibilgetuko beste kontu-sail batzuek ere ez dute inbentarioan xehakapenik.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.7 ZERGA-SARRERAK, -ZORDUNAK ETA -HARTZEKODUNAK

B.7.1 AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK ETA ESKUBIDEEN DEUSEZTAPENAK

2022ko aurrekontuan aitortutako zerga-sarrerak itzulketak kenduta garbi bildutakoak dira, izan ere GFak kutxa irizpidea baliatzen du zerga-sarreraren aurrekontuko kontabilitatean. Hauek dira xehetasunak, gastu kontzeptuak aintzat hartuta:

	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE AITORTUAK	
	2022	2021
Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.....	2.136.592	2.056.934
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga.....	16.123	14.732
Sozietateen gaineko zerga.....	336.854	344.005
Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga.....	59.097	69.895
Ondarearen gaineko Zerga.....	68.422	70.818
Beste txiki batzuk.....	9.304	17.269
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	2.626.392	2.573.653
Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentuen gaineko zerga.....	85.649	89.030
Balio erantsiaren gaineko zerga.....	2.315.205	2.095.444
Zerga bereziak.....	465.259	516.604
Aseguru sarien gaineko zerga.....	35.253	33.416
Beste txiki batzuk.....	45.296	3.759
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	2.946.662	2.738.253
Zerga-isunak.....	5.387	11.652
Jokoaren gaineko tasak.....	11.759	9.050
Berandutza interesak.....	4.866	7.666
Premiamenduko errenergua.....	4.052	3.374
Bestelako tasak eta sarrerak.....	14.364	11.885
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	40.428	43.627
1, 2 eta 3 KAPITULUETAKO SARRERAK GUZTIRA	5.613.482	5.355.533

Aitortutako diru-sarreraren guztizkoa 5.613,5 milioi euro izan da eta era honetara zatibanatzen da: zerga-sarrerak 5.609,2 milioi euro (5.598,1 milioi euro itunpekoak eta 11,1 milioi euro ez-itunpekoak); eta beste sarrera batzuk, 4,3 milioi euro.

Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuak itxitako ekitaldietako zerga-zorren baliogabetzeak jasotzen ditu, honako kontzeptu eta zenbateko hauekin:

	Euroak milakotan	
	Ekitaldi itxietako zerga itunduen zordunak	
	2022	2021
Zuzkitutako kreditu kobraezingatik deuseztapenak.....	39.665	62.678
Borondatezko aldiaren etendako likidazioak deuseztatzea.....	1.806	5.424
Preskripzioagatikotik bajak.....	4.403	12.694
Beste deuseztatze batzuk, kontzeptu txikiagoengatik.....	4.243	3.596
EKITALDI ITXIETAKO ZERGA-ZORDUNEN DEUSEZTATZEAK GUZTIRA	50.117	84.392





B.7.2 ZERGA-ZORDUNAK ETA -HARTZEKODUNAK

Hona hemen Egoeraren Balantzeko kontuak zerga-zordunei dagokienez:

	Euroak milakotan			
	Zerga-zordunak	Aurrekont. zordunak	Beste zordun batzuk	Balantzea guztira
Epe luzeko inbertsio finantzarioak	93.542	-	527	94.069
Epe luzera geroraturiko zerga-zorrak	(*)214.946	-	-	214.946
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(121.404)	-	-	(121.404)
Langileei e/luz. kredituak	-	-	527	527
Kudeaketa eragiketengatiko zordunak	29.799	75.183	-	104.982
Aurrekontuko zordunak	-	75.183	-	75.183
Geroratu gabeko zorrak	729.881	-	-	729.881
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(700.082)	-	-	(700.082)
ZORDUNAK GUZTIRA, KAUDIMENGAB. ZUZKIDURARIK GABE	123.341	75.183	527	199.051
Zerga-zordunak	944.827			
Kaudimengabez. zuzkid.	(821.486)			

(*) Epe luzera geroraturiko zerga-zorretan, GFAK gerorapenen zenbateko osoa erregistratu du 78,3 milioi euroren zenbatekoarekin, epe laburreko mugaeguneratzeak barne.

Hona hemen zerga-kontuen xehakapena eta bilakaera 2022ko ekitaldian:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	22.12. 31	21.12. 31
Beste administrazio batzuetan sartutako zerga-zorrak	34.218	29.168
Geroraturiko zorrak	217.069	209.756
Ebazteko dauden gerorapen eskaera duten zorrak	6.150	6.845
Konkurtsu prozeduretan zorrak	43.475	63.970
Errekurtso eta bestelakoengatik etendako zorrak	55.394	58.270
Borondatezko aldiko beste zor batzuk	7.234	5.955
Betearazte bideko beste zor batzuk	581.287	591.848
Administrazio egoeraren araberrako zordunak	944.827	965.812
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(821.486)	(846.583)
Zerga-sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak (ikus B.11)	(2.200)	(3.995)
Zerga-zordunen erakunde konpromisoetarako zuzkidura	(102.283)	(96.753)
ZORDUNAK, ZUZKIDURA ETA HARTZEKODUNIK GABE	18.858	18.481

Eragiketa hauek aurrekontuan islatzeko, 2022ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikina 18,9 milioi euroan gehitu behar da.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Balantzean zerga-zordunen erakunde-konpromisoetarako zuzkidurak eta aurreko ekitaldietakoak diren zerga-zorren gauzako kobrantzak agertzen dira. Erakunde-konpromisoetarako zuzkiduraren xehakapena honako hau da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Guztira	Epe luzera	Epe labur.
Gauzako kobrantzak.....	40.747	40.747	-
Zerga-zordunak.....	102.283	8.973	93.310
Erakunde-konpromisoetarako zuzkidurak	143.030	49.720	93.310

2022ko abenduaren 31n zergak itzultzeko 72,9 milioi euroren eskabideak daude, onartzeko zain, eta honenbestez, erregistratu gabe daude data horretan. 2021eko ekitaldi itxieran zifra 77,4 milioi euro zen.

GFAk, 2022ko apirilean eta maiatzean, zerga-zorren 1.877 geroratze eman ditu, 27,6 milioi euroren zenbatekoan, apirilaren 5eko 1/2022 Foru Dekretu-Arauari 2. artikulua araberaren (1/2022 Foru Dekretua, apirilaren 5koa, egungo energia-krisiaren, prezioen igoeraren eta Ukrainako inbasioaren ondoriozko inpaktu ekonomikoa arintzeko premia zerga-neurri buruzkoa). Artikulu honetan aipatzen diren zergapekoek zenbateko bereko hileko 6 kuotako zatikapena eskatuz ordaindu ahal izango dute zerga-zorra, eta lehenengo kuota ordaindu beharko dute 3 hilabeteko gabealdia igaro ondoren.





B.8 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZA KORRONTE ETA KAPITALEZKOEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen kapitulu hauetan erregistraturiko sarreren xehakapena:

KONTZEPTUA	KORRONTEA		KAPITALEZKOA	
	2022	2021	2022	2021
Aurreko ekitaldiko kupoaren likidazioa (B.5.1).....	-	92.165	-	-
Autonomia Sistema eta Mendekotasunari arreta	36.720	35.051	-	-
Garraioari laguntzak.....	2.174	13.881	-	-
Beste transferentzia batzuk	1.119	773	-	-
Estatuko administrazioetik	40.013	141.870	-	-
Doiketa funts orokorra (ikus B.5.1).....	85.929	-	-	-
684/2021 EDren funtsa	62.930	-	-	-
Eusko Jaur. Inbert. Estrategikoetarako Erakundearteko Plana.....	14.200	-	-	-
Egoitzetxeetako osasun-laguntza	11.621	9.536	-	-
Beste txikiago batzuk	2.259	5.248	-	-
EAEtik	176.939	14.784	-	-
GLHtik	284	1.065	1.383	5.190
Egoitzak eta eguneko zentroak egokitzea	-	-	10.896	8.432
FEADER 2015-2020 PDR laguntzak	2.345	2.134	235	920
Beste txiki batzuk.....	1.375	4.529	2.831	5.965
Europar Batasunetik (*)	3.720	6.663	13.962	15.317
Beste batzuk	-	44	707	755
TRANSF. ETA DIRULAGUN. ERAG. SARR. GUZTIRA	220.956	164.426	16.052	21.262

(*) Kutxa irizpidea baliatuta erregistraturiko sarrerak eta behin-behinekoak dirulaguntza kitatu arte.

2021eko abenduaren 28an, FPEK-k erabaki zuen abuztuaren 3ko 684/2021 Errege Dekretuaren bidez EAEri esleitutako 644,5 milioi euroren zenbatekoa erakundeen artean banatzea; Errege Dekretu horrek 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 117. artikuluan autonomia erkidegoetarako eta Ceuta eta Melilla hirietarako aurreikusitako baliabide-zuzkidura gehigarria ordaintzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzen ditu. Banaketa hori 2022-2026ko aldirako ekarpenei buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legean onartutako ekarpen-koefiziente bertikal eta horizontalen arabera egin zen. Foru Gobernu Kontseiluaren 2022ko urtarrilaren 18ko Erabakiaren bidez, jasotako zenbatekoaren % 39,96 laga zitzaien Gipuzkoako udalei, hau da, 25,1 milioi euro eskualdatu zitzaizkien.

2022ko apirilaren 1ean, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 2022-2024 aldirako Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Plana sinatu zuten, 528,8 milioi euroren zenbatekoarekin; horietatik 32 milioi GFARI dagozkio (14,2 milioi euro 2022ko ekitaldirako eta 17,2 milioi euro eta 600.000 euro 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako, hurrenez hurren).





B.9 IBILGETU FINANTZARIOA ETA AKTIBO FINANTZARIOAK

Hona hemen entitateetako inbertsioen balorazioen eta zuzkiduren xehetasunak, bai eta 2022ko ekitaldian egindako ordainketak ere:

	2022ko gastua	Euroak milakotan			
		Aktibo	22.12.31		% partaid.
SOZIETATEA	finantzarioak	Kontularitzako balioa	Zuzkidura	Balio garbia	GFA
Uliazpi Fundazioa erakunde autonomoa	-	7.991	-	7.991	
Kabia Erakunde Autonomoa	-	23.703	-	23.703	
Foru erakunde autonomoak	-	31.694	-	31.694	
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.....	-	21.604	(6.214)	15.390	100,0
Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA.....	-	20.719	-	20.719	100,0
IZFE SA.....	-	439	-	439	100,0
Foru sozietate publikoak	-	42.762	(6.214)	36.548	
Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SA.....	-	17.432	(334)	17.098	20,4
Kursaal Zentroa SA.....	-	11.182	-	11.182	50,0
Garaia Teknologia Parkea Koop S.	-	6.431	(440)	5.991	27,7
Garapenerako Euskadiko Kapital-Sozietatea-Socade SA.....	-	5.952	-	5.952	19,8
Beterri-Kostako Industrialdea SA.....	-	5.706	(351)	5.355	24,5
Irungo Aduana-Guneko Elkarte Sustatzailea SA (ZAISA).....	-	5.423	-	5.423	33,3
Deba Bailarako Industrialdea SA	-	4.237	-	4.237	24,4
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA	-	4.050	-	4.050	33,3
Ekarpen Private Equity SA.....	-	2.915	(38)	2.877	4,3
SEED Gipuzkoa SCR SA	5.460	9.505	(3.349)	6.156	50,0
Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA.....	-	3.348	-	3.348	24,5
Tolosaldeko Apataerreaka Industria Lurra SA.....	-	2.816	(517)	2.299	24,5
Urolako Industrialdea SA	206	2.583	-	2.583	22,2
Goiherri Beheko Industrialdea SA.....	-	1.225	-	1.225	24,5
Bic Gipuzkoa Berrilan SA	200	1.374	(606)	768	50,0
FIK ekimena, AIE.....	-	1.000	(698)	302	5,7
14 sozietate milioi 1 euroren kostua edo txikiagokoak.....	425	3.413	-	3.413	
Beste sozietate batzuk	6.291	88.592	(6.333)	82.259	
Epe luzera eratutako gordailuak	-	206	-	206	
GUZTIRA	6.291	163.254	(12.547)	150.707	

2022ko ekitaldiko finantza-aktiboen ondoriozko gastua 6,8 milioi euro da, eta barne hartzen ditu enpresetako inbertsioetan egindako ordainketak, 6,3 milioi eurorenak, aurreko taulan zehaztutakoak. Gainerako gastua langileei emandako maileguez osatutakoa da.

2022ko ekitaldian Kabiaren eta Uliazpi Fundazioaren balorazioa 1,6 eta 5,6 milioi euroan gehitu da, hurrenez hurren San José Etxea eta Lasarte-Oriako Atsobakar egoitzaren atxikipenaren ondorioz.





B.10 ZORRA

Zorraren bilakaera ekitaldian honako hau izan da:

	Euroak milakotan
Banku-maileguak 2021eko abenduaren 31n	307.180
2021/12/31ko saldoa aplikatzea, mailegua ezeztatzeko aurrekontu-funtsa.....	(52.800)
Maileguen amortizazioak 2022ko ekitaldian.....	(39.915)
Kreditu-lerroen erabilera 2022ko ekitaldian.....	(*)196.600
Banku-maileguak 2022ko abenduaren 31n	411.065

(*) GFAk sei kreditu-lerro ditu, guztira 241,6 milioi eurorenak, eta horiek aurreko ekitaldietan aurrekontuko diru-sarrera gisa erregistratu ziren. 2022ko abenduaren 31n, 196,6 milioi euro erabili dira, eta 45 milioi euroko aldea ageri da Diruzaintza Bateratuko Geldikinaren kalkuluan.

Egoeraren Balantzeko saldoen xehakapena honakoa da:

	Euroak milakotan		
ZORRA	Zorrak epe labur.	Zorrak epe luzera	GUZTIRA
Kreditu erakundeekiko zorrak.....	31.015	380.050	411.065
Beste zor batzuk (Epe labur. jasotako bermeak eta gordailuak) (ikus B.11).....	2.151	-	2.151
EGOERAREN BALANTZEA GUZTIRA	33.166	380.050	413.216

Abalak

GFAk emandako berme bakarrak, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenak, guztira 500 milioi euro egiten duten lau abal dira, Bidegi SAK IEBrekin formalizatutako maileguen berme gisara emandakoak; horien saldoa 2022ko ekitaldi itxieran 256,1 milioi euro da. Mailegu horien amortizazioa 2027 eta 2034 bitartean egingo da (ikus D.4).

B.11 AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Aurrekontuz kanpoko zordunak 2022ko abenduaren 31n 364 milioi euroko saldoarekin daude erregistratuak "Beste zordun batzuk eta kobratzeko kontuak" kontuan eta nagusiki honako kontzeptu hauek barne hartzen dituzte:

- 2022ko ekitaldiko laugarren hiruhilekoari dagokion lurralde arteko doikuntza foru aldundien artean BEZagatik, zerga bereziengatik eta finantza-transakzioen gaineko zergarengatik, 256,2 milioi euroren zenbatekoan. Zenbateko hori 2022ko ekitaldiko diru-bilketa gisa aplikatu da aurrekontuan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak gasolioagatik eta garraioengatik ordaindutako aurrerakinak, 98,3 eta 6,3 milioi eurorenak, hurrenez hurren. Aurrerakin horiek Estatuko Administrazio Orokorrak onartutako hobarietan, aurrerakinetan eta zuzeneko laguntzetan dute jatorria, eta 2023an itzuli zitzaizkion GFARI.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2022ko abenduaren 31n 21,5 milioi euroren saldoa duten aurrekontuz kanpoko hartzekodunak, funtsean, Balantzearen pasiboko “Hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk” kontuari eta jarraian zehaztu ditugun beste kontzeptu batzuei dagozkie:

Euroak milakotan	
SALDOA	
22.12. 31	
Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu ez-aurrekontuzko batzuk	19.385
“Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz.” epigrafea guztira	21.982
Zerga itzulketengatiko hartzekodunak (ikus B.7.2)	(2.200)
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak	(330)
Beste txiki batzuk.....	(67)
Epe labur. jasotako berme eta gordailuak “Epe laburreko zorrak”en erregistratuak (ikus B.10).....	2.151
AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK	21.536

B.12 AURREKONTUAREN ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO KONTZILIAZIOA

Kontabilitate orokor publikotik eskuratutako ekitaldiko emaitzaren eta aurrekontuko emaitzaren arteko kontziliazioa honako taula honetan jaso dugu:

Euroak milakotan	
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza	49.948
Ekitaldi itxien aurrekontuko emaitza.....	2
AURREKONTUAREN EMAITZA	49.950
Zerga-eragiketetan aurrekontu eta ondare artean erregistro-irizpidean aldea	378
Inbertsio errealak	108.507
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura (ikus B.6).....	(77.899)
Errepideak konpontzeagatiko inbertsio errealak, kapitalizatu ez direnak (ikus B.6).....	(56.287)
Beste erakunde batzuentzat egindako laneng. inber. errealak (ikus B.6)	(9.196)
Inbertsio errealen besterentzea	(843)
Galerak, ibilgetu materialetik eratorritako mozkinak kenduta	(1.249)
Aktibo finantzarioen bariazio garbia.....	6.365
Pasibo finantzarioen bariazio garbia	39.915
Bestelako kontu-sail txikiak	1.297
EMAITZA KONTABILITATE OROKOR PUBLIKOAREN ARABERA	60.938





B.13 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

B.13.1 KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK

2022AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	Prozed.	Esleipena		Exek.	
		Mota	Zenbat.	2022	Akats.
DIPUTATU NAGUSIA					
1. Dokumentazioko eta ikusentzunezko eduki eta zuzeneko emanald. zerb. osag...	PI	Zerb.	121	-	
GOBERNANTZA					
2. Eraikin ezberdinen arteko logistika, larrialdiet. giza baliab. eta materialak barne..	PIH	Zerb.	986	82	
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK					
3. Udal eraikinetan eguzki instalazio fotovolt. autokonts. kolektiborako eta beste...	PI	Obrak	2.548	1.228	A2
4. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko obrak	PI	Obrak	413	230	A2
5. Beasaingo Astigarretako saneamendu-proiektu eguneratua jasotako obrak	PIS	Obrak	371	367	A2
6. Gipuzkoako itsasertzeko hondartzak garbitzea	PIH	Zerb.	3.423	36	A2
7. Hondartzen garb. zerb. gainbegiratu, kontrolatu eta ebaluatzeko lag. tekn.....	PIH	Zerb.	158	7	A2
SUSTAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA ETA LANDA INGURUNEA					
8. Mubil Mugikortasun Adimendun eta Iraunkorreko Zentroa gauatzeko proiekt....	PIH	Obrak	14.231	1.089	A1,2,4
9. Turismo bulegoak garatu beharreko arreta turistikoa	PIH	Zerb.	626	35	A1,2,3,B
10. Mubil Mugikort. Adimendun eta Iraunkorreko Zentroa proiekt. obra zuzend.....	PIH	Zerb.	579	40	A1,2,3
11. Elisa kit-ak behien osasun-plan eta saneamendu-kanpainetarako	PIH	Horn.	a.p.	50	A1
MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA					
12. Herrera Iparraldean (Pasaia) behinbehineko aparkaleku bat urbaniz. obrak.....	PIS	Obrak	773	770	A2,3,4
13. Antzuolako Jauregi tunelaren inguruan zenbait lur-jausi konpontzeko lanak	PI	Obrak	201	-	A2,3,4,5
14. Garraio Publ. kudeatz. Lurraldebus Guneko eragiketa eta erabiltzaileen arreta ..	PGPN	Zerb.	287	326	A3
OGASUNA ETA FINANTZAK					
15. Datuen eta dokumentuen tratamendua Ogasun eta Finantza Departamentua...	PIH	Zerb.	a.p.	259	
16. TicketBAI sistemaren publizitate kanpainak zabaltzeko sustapen zerb.	PIH	Zerb.	a.p.	379	A1
BIDEEN AZPIEGITURAK					
17. GLH eskuald. eta tokiko errep. sarea eta txirind. bideak zaindu eta ustiat.....	PIH	Zerb.	17.647	5.292	A2
18. GI-20 Donostiako saihesbidean Marrutxipiko lotunearen proiektu berrikusia	PIH	Obrak	11.435	1.202	A2
19. GI-20 Marrutxipiko lotunearen proi. berrikusiaren obren zuzend. lag. tekn.	PIH	Zerb.	756	183	A2
20. Leintz Gatzagan, GI-627 errepideko hiru lerradura egonkortzea.....	PI	Obrak	1.380	1.082	A2
21. N-I errepidean bi zatiren bidezorua egit. birgaitzea, Gasteiz-lrun noranzk.....	PI	Obrak	1.036	1.082	A2
22. Pantaila akustikoak jartzeko proiektua N-Ien Tolosan	PI	Obrak	1.582	576	A2
23. Oindolar eta Gorosmendi tuneletako obren zuzend. lag. tekn. 1. separata.....	PIH	Zerb.	1.240	123	A2
24. Oindolar eta Gorosmendi tuneletako estald. sendotz. obrak 1. separata	PIH	Obrak	19.330	-	A2
25. Lasarte-Oriako hegoaldeko lotunean biribilgune goratua egiteko proiektua	PI	Obrak	7.949	83	A2
26. Kanpanzarren N-636 errepidea zabaltzeko eta hobetzeko proiektua	PI	Obrak	1.280	77	A2
GIZARTE POLITIKAK					
27. Zainketa asistentzialak, soziosanitarioak eta osagarriak Egogain zentroan	PIH	Zerb.	(*)3.818	2.044	
28. Buru nahaste larriko pertson. laguntz. etxeb zerb. Donostian eta Zarautzen	PIH	Zerb.	(*)930	131	
29. Etxetek programan laguntza teknikoak kudeatzeko lag. tekn. zerb.	PIH	Zerb.	(*)3.586	135	
30. Bergara eta Soraluzeko adineko mendeko pertsonentzako eguneko zentroak...	PIH	Zerb.	(*)879	139	
31. Egoitza-harrera gizarte-babesik gabeko adingabeei hainbat egoitzatan	PIH	Zerb.	(*)12.412	1.386	
32. Laguntza tekn., desgaitasun balor. irizpen mediko eta psikologikoak egiteko....	PIH	Zerb.	(*)2.947	652	

.../...





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DESKRIBAPENA	Prozed.	Eselepena		Euroak milakotan	
		Mota	Zenbat.	Exek. 2022	Akats.
KULTURA, KOOPERAZIOA, GAZTERIA ETA KIROLAK					
33. GFAko artxibo historikoen antol. eta agiri garaikideen deskribapena	PIH	Zerb.	173	130	A5
34. Villa Asunción Etxearen barne aldea egokitzea	PIS	Obrak	431	223	A2
GUZTIRA			113.528	19.438	

(*) Aleko prezioen arabera esleitua, ageri den zenbatekoa hasierako iraupenaren aurrekontua da, balizko luzapenak kontuan hartu gabe.

AKATSAK	Euroak milakotan	
	Esp. zk.	Zenbat.
A1 Espedienteak ez daude sartuta Urteko Kontratazio Planean	5	15.436 eta a.p.
A2 Prezio irizpidea balioztatzeko baliatutako formula ez dago justifikatua	21	87.389
A3 Eselepenaren ez da adierazten jardura gauzatu duten langileen hitzarmen kolektiboa.....	5	2.466
A4 Kontratazio atalak ez du Segurtasun eta Osasun Plana onartu.	3	15.205
A5 Eselepenaren atzerapena dokumentazioa irekitzen denetik	2	374
B "Barne-kontrolako eta kudeaketa-prozeduretako irizpideak " atalean aipatutako akats espezifikokoak		

DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Eselep. zenbat.	EXEKUZIOA			Egoera
			21/12/31	2022	22/12/31	
DIPUTATU NAGUSIA						
35. Tokiko administraz. berdintas.-politikak bultzatz. eta indartz. (2 urte eta luzap.)...	2020	329	256	152	408	Exek.
GOBERNANTZA						
36. Auto-eskailera birakari automatikodun 2 ibilgailu	2021	1.577	-	788	788	Exek.
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK						
37. Gipuzkoako itsasertzeko hondartzak garbitzea	2020	2.234	1.153	1.081	2.234	Amai.
38. Epidemiologia zerb. berezia. Gipuzkoako Ingurumen gunea (4 urte)	2020	1.421	752	413	1.165	Exek.
39. Naturklima eraikina egin eta urbanizatzea	2021	7.163	3.594	3.781	7.375	Exek.
40. Bidania-Goiatzen saneamendu-proiektua	2021	1.701	1.542	462	2.004	Amai.
41. Uholdeak preben. proiekt. Jaizkibel ekiald. hegal. erre., 2. fasea. 6. eta 8. kolekt.	2021	1.130	538	729	1.267	Amai.
42. Bidasoako suhiltzaile etxearen birgaitze energetikoa	2021	598	374	257	631	Amai.
43. Sareko estazioen datuak mantentzea eta ustiatzea (2 urte)	2021	390	176	195	371	Exek.
SUSTAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA ETA LANDA INGURUNEA						
44. Mihi urdina izan dezaketen espezieetan saneamendu programak (1 urte eta 1 luz.)	2021	a.p.	154	323	477	Exek.
MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA						
45. Ticketing Lurraldebus sistemaren proi., horn., instal., abiaraztea eta mant.	2021	23.891	1.657	459	2.116	Exek.
BIDEEN AZPIEGITURAK						
46. Lehenas., oinarr. eta eskuald. sareetako errep. bide-zorua konpon. (2 urte eta luz.)	2020	10.328	8.026	2.723	10.749	Exek.
47. Tokiko sareko errepideen zorua birgaitzea (2 urte eta luz.).....	2020	3.878	2.880	1.327	4.207	Exek.
48. GFAko errepideen sareko instrument. geoteknikoa ezarri eta kontr. (2 urte eta luz.)	2020	683	422	262	684	Exek.
Espediente aldatua		(62)				
49. Foru sareko errepide korronteen seinaleztapen horizontala (2 urte eta luz.).....	2020	1.689	841	841	1.682	Exek.
50. Belabietako tunelaren estaldura sendotzea eta egokitzea (A-15 autobia)	2021	14.730	11.794	5.617	17.411	Amai.
Kontratu aldaketak 1 eta 2 (2021eko iraila eta abendua)		1.539				
Prezioen berrikuspina (2022ko iraila).....		1.058				
51. Urola-Debaldea inguruko errepideak kontserbatu eta ustiatzea	2021	11.302	1.413	5.651	7.064	Exek.

.../...





DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Esleip. zenbat.	EXEKUZIOA			Egoera
			21/12/31	2022	22/12/31	
52. GI-631 errepidean aurreratzeko tarte eraikitzea (Azkoitia-Urretxu).....	2021	7.760	1.490	4.816	6.306	Exek.
Esped. aldatua 1 eta 2 (2022ko uztaila eta urria)		(108)				
53. GI-2132 errepidea Astigarragan 27 poligonoarekin lotzea.....	2021	6.094	2.907	4.176	7.083	Amai.
Prezioen berrikuspena (2022ko iraila)		433				
54. Euste-sistema eta pantaila akustikoak egokitzea N-1 errepidean Lasarten	2021	2.022	1.001	1.549	2.550	Amai.
Esped. aldatua 1 (2021eko abendua).....		149				
Espediente aldatua 2 (2022ko martxo).....		227				
55. Kostald. itsasertz. zatietan N-634 eta GI-638 errep. zabalg. konp. eta sendotz.	2021	1.340	-	477	477	Exek.
56. Belabietako tunelean (A-15 autobia) berrik.proi.obra-zuzendaritz. aholk. tekn.....	2021	989	568	486	1.054	Amai.
Esped. aldatua 1 (2021eko abendua).....		6				
Espediente aldatua 2 (2022ko martxo).....		85				
57. GI-631 aurreratzeko tarte eraikitze proiekt. obren zuzendaritza tekn. aholk.....	2021	505	179	341	520	Exek.
Esped. aldatuak 1, 2 eta 3 (2022ko maiatza, azaroa eta abendua).....		134				
58. Euste-horma eraikitzea Eskoriatzako GI-627 errepidean	2021	491	-	464	464	Amai.
59. Oñatin GI-2630 errepidean eustorma egonkortzea	2021	311	-	323	323	Amai.
GIZARTE POLITIKAK						
60. Zainketa asistentzialak, soziosanitarioak eta osagarriak Egogain zentroan (3 urte).	2019	a.p.	7.439	324	7.763	Amai.
61. Mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroak Astigarraga, Beasain Errenteria, Getaria, Lezo, Orio eta Urnietan (3 urte eta 1 luz.).....	2019	a.p.	3.831	5.317	9.148	Exek.
62. Adingabeen babes-zentroaren larrialdiko egoitza-harrera Uban (2 urte eta 2 luz.).....	2019	7.752	6.975	3.472	10.447	Exek.
63. Emakume biktimen autonomia-etxebizitzet. harrera-zentroa (1 urte eta 1 luz.).....	2020	1.217	2.451	182	2.633	Amai.
64. Int. psikosoz. eta sozioedukatiboa (Bideratu eta Trebatu) (1 urte eta 1 luz.).....	2020	5.470	7.295	3.933	11.228	Amai.
65. Azpeitia, Urretxu eta Arrasateko zentroetako egoitza-harrerako zentroa babesgabetsun-egoeran dauden adingabeentzat (2 urte eta 1 luz.)	2020	3.730	2.460	1.994	4.454	Exek.
66. Eibarko Egoitza-unitate soziosanitarioa (2 urte eta 1 luz.).....	2020	4.045	1.466	1.784	3.250	Exek.
67. Gizartean babesik gabe dauden adingabeentzako egoitza-harrera (2 urte)	2021	9.304	1.150	4.621	5.771	Exek.
68. Haur eta nerabeen babes.-egoera baloratzeko proposam lag. tekn. (2 urte)	2021	3.239	945	1.679	2.624	Exek.
69. Egoitza-harreraren jarraipena eta ikuskapena egiteko aholk. teknikoa (2 urte)	2021	2.438	1.016	1.283	2.299	Exek.
KULTURA, KOOPERAZIOA, GAZTERIA ETA KIROLAK						
70. Deba ibaiaren gaineko zubia birgaitzeko proiektu lanen zuzendaritza	2020	317	247	102	349	Amai.
71. Kultur eragileak artatzeko eta laguntzeko bulegoaren kudeak. (2 urte eta luz.).....	2020	326	231	163	394	Exek.
72. Koldo Mitxelena Zentroa partzialki eraberr. proiekt. eta best. azterl. idaztea	2021	260	184	103	287	Amai.
GUZTIRA			77.407	62.650	140.057	



B.13.2 ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOKO ESPEDIENTERIK GABEKO GASTUA ETA KONTRATU TXIKIAK

Administrazio kontratazioko-espediterik gabe kontratatutako gastua berrikusi ondoren, honako hau hauteman dugu:

- GFAk gizarte-zerbitzuen zortzi kontratu izapidetu ditu, SPKLren 29.4 artikuluan aurreikusitako 3 hilabeteko aurrerapenik gabe. Aurreko esleipendunek zerbitzua ematen jarraitzen dute behin kontratuak amaitu ostean; honela, bada, espediterik gabeko gastua 2022ko ekitaldian 12 milioi euro izan da; hona hemen xehakapena

DESKRIBAPENA	Zenb.	Euroak milakotan		
		Aurreko kontr. mugaeg.	EBAO data edo kontr.prof.	Kontr. berr. gauzatze data
Aldakonea eta Txara 2 zentroetako adinekoen egoitza	5.591	2031/03/21	2024/05/22	E/E
Int. psikosoziala (Bideratu) eta int. sozioedukatiboa (Treatu).....	1.930	2022/09/1	2023/01/3	E/E
Irizpen mediko eta psikologikoen balorazioa	1.126	2022/03/15	2022/05/27	2022/09/23
Emakumeei arreta emateko zentroak: hainbat zerbitzu	1.067	2022/03/1	2023/01/3	E/E
Laguntza teknikoen kudeaketa. Etxetek programa	1.022	2021/02/28	2022/02/1	2022/12/1
Txara 1 bizikidetzeta-unitateen kudeaketa	560	2021/03/31	2023/02/22	2023/06/1
Eguneko zentr., lagunt. etxebiz.k eta tutor. apart. Elizaran zentr.	485	2022/06/15	2023/03/3	2023/11/1
Adingabeen familia-harrerarako laguntza	267	2022/12/1	2023/02/10	E/E
GUZTIRA	12.048			





- Kontratu txikien xedea aztertuta, 3, 4 eta 31 gastu-kontzeptu kontratatu direla detektatu da, guztira 2,6 milioi euro, 1,6 milioi euro eta 1,3 milioi euroren zenbatekoarekin. Horietarako, baina, prozedura irekiak, prozedura ireki sinplifikatuak eta prozedura ireki sinplifikatu laburtuak egin behar ziratekeen, hurrenez hurren:

Euroak milakotan		
DESKRIBAPENA	Departamentua	Zenbat.
Suhiltzaileentzako jantziak eta materiala eskuratzea	Gobernantza	206
Suhiltzaileen ibilgailu astunen mantentze-lana	"	183
Arreta goiztiarreko zerbitzua (11 hornitzaile)	Gizarte Politikak	2.205
PROZEDURA IREKI BIDEZ IZAPIDETZEKOA GUZTIRA		2.594
Aurrekontu irekiak komunikatzeko materiala	Gobernantza	103
Baso-lanak (obrak) (21 hornitzaile)	Sust. ekon., Turismoa eta Landa ingurunea	1.260
Anothe programa: animaliek lagundutako terapia eta hezkuntza	Gizarte Politikak	116
Osasun-materiala eta laguntza-produktuak	"	104
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ IZAPIDETZEKOA GUZTIRA		1.583
Aniztasunarekin lotutako ekintzak	Diputatu Nagusia	36
Berroneratze-lanak (obrak)	Ingurumena eta Obra Hidraulikoak	89
Presa txikiak eraisteko proiektuak	"	77
Geotekniako txostenak	"	43
Azterketa geologiko-geoteknikoa	"	35
Hainbat espezieren jarraipena eta kontrola	Sust. ekon., Turismoa eta Landa ingurunea	69
Laborategiko produktuak	"	66
Gure Lurra aldizkaria	"	47
Publizitatea prentsan	"	42
Albaitaritzako sendagaiak	"	42
Catering-a	"	41
Azafata-zerbitzua	"	38
Ticketbai	"	36
Turismo-gida	"	33
PAC 2022 laguntza teknikoa	"	30
Gipuzkoa Talent Forum	"	29
Zerga- eta lan-aholkularitza	"	26
Karpak muntatzea eta argizatzea	Mugikortasuna eta lurralde antolamendua	31
Adinekoen egoitzetan elkarlanerako plataforma	Gizarte Politikak	51
Departamentuko zentroetako ingeniari-zerbitzua	"	48
Bertsolaritza programa egoitzetan	"	37
Azkoitiko San Jose egoitza eraberritzeko proiektua	"	36
Azkoitiko San Jose egoitzaren planoak eta proiektua egitea	"	28
Egogainen bosgarren solairua egokitzeko proiektua eta obra-zuzendaritza	"	36
Zarategin proiektua eta obra-zuzendaritza	"	21
Erakusketa-aretoetako jendearentzako arreta	Kultura, Kooperazioa, Gazteria eta Kirolak	47
Jokabide-adikzioei buruzko sentsibilizazioa	"	36
Eduki digitalen koordinazioa	"	36
Kirol-arloko publizitate-babesletza	"	30
Trofeoak eta plakak	"	29
Eguneroko prentsa	"	20
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTU BIDEZ IZAPIDETZEKOA, GUZTIRA		1.265





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B.14 DIRULAGUNTZEN ANALISIA

DIRULAGUNTZA IZENDUNAK	Euroak milakotan			
	KONTZEPTUA	D FASEA Onurad.	2022	Konpr. K. D FASEA Akatsa
DIPUTATU NAGUSIA				
1. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2030. Lurraldearen ikuspegi partekatua	IAGE	182	250	C
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK				
2. Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa. Ekarpena	TE	6.000	41.000	
SUSTAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA ETA LANDA INGURUNEA				
3. Bilbao Ekintza TEFP Frantziako Tourraren etapak Gipuzkoan	ENP	100	1.000	
4. Eraikune, Euskadiko Eraikuntzaren Kluster Elkarte	IAGE	135	-	
5. Soraluzeko Udala. Erabilera sozial eta ekonomik. espazio degradatuak berroneratzea ..	TE	700	-	C
6. Getariako Udala. Zarautz Jauregia birgaitzea	TE	375	713	
MUGIKORTASUNA ETA LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA				
7. Hiri-trafikoengatikoko dirulaguntza 10 udali	TE	1.300	-	C
8. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Arrantza-lonjako estalki ibilgarriko obrak	TE	500	500	A 1
9. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren La Herrera pabilioiak estaltzeko obrak	TE	700	600	A 1
GIZARTE POLITIKAK				
10. Gureak Lanean SA. Ezgaitasuna dutenentzako arreta okupazionala	IAGE	7.421	-	D
11. Gureak Inklusio Fundazioa. Landuz proiektua	IAGE	277	-	A 2
12. Sutargi SAL. Landuz proiektua	IAGE	263	-	A 2
KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROLAK				
13. Euskadiko Txirrindularien Elkarte	IAGE	320	-	B1,C
14. Irungo Udala. Liburutegia handitzeko proiektua	TE	600	-	
DIRULAGUNTZA IZENDUNAK GUZTIRA		18.873	44.063	

DIRULAGUNTZA ZUZENAK	Euroak milakotan			
	KONTZEPTUA	D FASEA Onurad.	2022	Konpr. K. D FASEA Akatsa
DIPUTATU NAGUSIA				
1. Baleuko SL. "Elbira" dokumentala	ENP	60	-	
INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOAK				
2. Añarbeko Urak SA Añarbeko beheko ubidearen ordezkio eronbidea	ENP	1.100	2.350	
3. Urola Kostako Mankomunitatea Jasangarritasun energetikoaren eskualdeko plangintza eta ekintza	TE	45	55	A 3
4. Bidasoa Garapen Agentzia SA. Planif. y acción comarcal sostenibilidad energ.	EMP	44	55	A 3
SUSTAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA ETA LANDA INGURUNEA				
5. Ikerbasque. Teknologia kuantikoen ekosistema garatzeko IBMrekiko lankidetzak	ENP	10.000	15.000	C
6. Cidetec Fundazioa. Egoitza Polo Mubileraren eramateko inbertsioak	ENP	360	7.467	
7. Tecnalia Research & Innovation Fundazioa. Egoitza Polo Mubileraren eramateko inbertsioak	ENP	-	5.642	
8. CEIT Zentro Teknologikoa Elkarte. Auto elektrikoaren inbertsioak	ENP	470	705	
9. Zarauzko Udala. Inberritze pasabidea	TE	150	100	
10. Donostiako Nazioarteko Zinemaldia. "Imajina ezazu jaialdi bat" erakusketa	IAGE	150	-	
11. Ur Kirolak Itsasoko Kirol Sozietatea. Europako Arraun Txapelketa	IAGE	111	-	A 3,B1
DIRULAGUNTZA ZUZENAK GUZTIRA		12.490	31.374	





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	D fasea 2022	Konpr. K. D fasea	Akats.
DIPUTATU NAGUSIA			
1. Euskarazko tokiko komunikabideak	1.768	7.878	
SUSTAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA ETA LANDA INGURUNEA			
2. Enpresa-ehunaren enpleguaren kalitatea eta ekosistema sozio-ekonomikoa (II., III. eta IV. eranskinak)	1.055	757	
3. Elkar-Ekin Lanean enplegua sustatzea eta gizarteratzea eta laneratzea (II. eta III. eranskinak)	649	1.948	
4. Smart Mobility Industry, mugikortasun elektrikoaren sektorea bultzatzeko	469	213	C
GIZARTE POLITIKAK			
5. Pertsona nagusientzako egoitza-zentroetan inbertsioak	900	4.401	
6. Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzako dirulaguntzak	1.228	-	
KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROLAK			
7. Kirol-arloko dirulaguntzak (A eta B eranskinak)	2.141	-	
DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK GUZTIRA	8.210	15.197	

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	D fasea 2022	Konpr. K. D fasea	Akats.
SUSTAPEN EKONOMIKOA, TURISMOA ETA LANDA INGURUNEA			
1. ADEGI. Enpresaren Kultura Berria azpiegitura sortzea: FABRIKA	200	200	
2. Zientzia Sarea. I+G proiektuak	1.578	-	
3. 2.500 biztanlelik beherako udalerrietako banda zabal ultra-azkarra	700	1.300	
GIZARTE POLITIKAK			
4. Gureak Lanean SA. Enplegu zentro bereziak egokitzea	1.950	-	
5. San Juan de Dios Donostia. Errondoko Goi Gizarteratze Zentroa gaitzea	1.282	513	
6. Urretxuko Udala Desgaituentzako gizarte-zerbitzuen zentroa eraberritzea	1.000	750	
7. Matia Gizarte Zerbitzuak SL Zentro gerontologikoa eraikitzea Usurbilen	148	-	
8. Berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-plana, inbertsioak eta gizarte-proiektuak	2.414	1.716	
9. Gizarte-zerbitzuetako zentroetan inbertsioak 2021-2022	3.576	-	
KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROLAK			
10. Real Sociedad fundazioa Gipuzkoako oinarriko futbolaren garapena	1.180	-	
11. Liburutegi, Sustapen eta Zabalkunde Zerbitzuaren laguntzak	872	355	
AURREKO URTEETAKO EMAKIDEN JUSTIFIKAZIOA, GUZTIRA	14.900	4.834	

AKATSA	Euroak milakotan	
	Kop.	Zenbat.
A1 Ez dira barne hartu diruz lagundutako obren aurrekontua eta GFaren finantzaketa-ehunekoa	2	2.300
A2 Gauzatu ondoren onartutako aldaketak	2	540
A3 Batzar Nagusiek onartutako hasierako aurrekontuan izendun gisa sar litezkeen zuzeneko dirulaguntzak	3	310
B1 Onuradunek ez dute egiaztatu 3 eskaintza eskatu izana gastuak kontratatuzko, eskagarria den kasuetan	2	E/E
C "Barne-kontrolero eta kudeaketa-prozedurei buruzko irizpideak" atalean aipatutako gabezia espezifikokoak		
D "Legea betetzeari buruzko iritzia"n aipatutako akats espezifikokoak		





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. FORU ERAKUNDE AUTONOMOAK

C.1 PERTSONALEKO GASTUAK

Ekitaldi itxieran kontzeptu eta plantillaren arabera xehakaturako pertsonaleko gastuak honako hauek dira:

	Euroak milakotan							
	ULIAZPI Gastua		Plantilla erreala 12-31n		KABIA gastua		Plantilla erreala 12-31n	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
Funtzionarioak	-	-	-	-	(*).5.479	2.638	132	122
Lan-kontratud	10.994	10.182	384	366	6.481	6.483	215	211
Ordainsariak eta plantilla	10.994	10.182	384	366	11.960	9.121	347	333
Gizarte Segurantzaz	3.739	3.482			2.672	1.942		
Elkarkidetzaz	173	171			225	317		
Bestelako gastuak	204	216			160	41		
PERTSON. GASTUAK, GUZTIRA	15.110	14.051			15.017	11.421		

(*). Gastuaren igoera zor zaio, nagusiki, Hernaniko egoitza Kabiara 2021ean gehitu izanari; 67 funtzionario ditu.

2022ko ekitaldiko ordainsari igoera % 3,5 izan da 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Kabiaren lanpostu zerrendak 23 lanpostu hartzen ditu, ez baititu udal egoitzetako lanpostuak jasotzen, zeinaren kudeaketa Kabiak hartu baitu bere gain. Urteko Kontuetan jasotako Memoriak 462 lanpostuko plantilla organikoaren eta aurrekontu-plantillaren berri ematen du, eta plantilla hori ezin da benetako plantillarekin bateratu, ez baitakigu zein den haren xehakapena.

C.2 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

C.2.1 KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK

2022AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	Esleipena Egikar.			
	Prozed.	Mota	Zenbat.	2021 Akats.
ULIAZPI				
Elikadura eta bestelakoak (garbiketa, garbitegia, lisatzea, jostea) Zubillaga zentroa	PI	Zerb.	228	-
Garbik., joskintza, lorez., harrera eta adm., eta eraikinen eta bst zerb. b. mant.-lanak	PIH	Zerb.	1.426	-
KABIA				
Oñatiko San Martin adinekoen egoitza eta eguneko zentroa	PIH	Zerb.	3.423	-

AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Esleipen. zenbat.	EXEKUZIOA			Egoera
			21/12/31	2022	22/12/31	
ULIAZPI						
Hainbat zentrotako garbik.-, garbitegia-, lorez.-, harrera-zerb. mant.	2021	1.572	-	1.603	1.603	Amait.
KABIA						
Zumaiako adinekoen egoitza (2 urte eta bi luz.)	2019	a.p.	4.386	1.903	6.289	Abian
Azkoitiko egoitza, eguneko zent. eta tutoretz. apart. (2 urte eta 2 luzap.)	2019	a.p.	5.828	2.748	8.576	Abian
Villabonako zntz. egoitza zerbitzua eta eguneko egonaldiak (2 urte eta bi luz.)	2019	a.p.	3.060	1.404	4.464	Abian
Lasarte-Oriako egoitza, psikogeriatría eta egun. zentz. (2 urte eta luz. 1)	2019	a.p.	6.810	2.937	9.747	Amait.
Elgoibarko adinekoen egoitza-zentroaren zerbitzua (2 urte)	2021	4.000	644	1.987	2.631	Abian



C.2.2 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOKO ESPEDIENTERIK GABEKO GASTUA

Kabia subrogatu egin da udalek (zerbitzuaren emakidaren aurreko titularrak) sinatutako administrazio-kontratueta, egoitzetako kudeaketaren foru eskumena egikaritzeko. 2018tik eta 2021era bitarteko urteetan Kabiak bere gain hartutako kontratu nagusiak mugaeguneratuta daude; beraz, zerbitzuak kontratazio-espediterik gabe gauzatzen ari dira; hona hemen kontratu horiei eta Kabiak bere gain hartutako datari eta subrogatutako kontratuen epemugari buruzko informazioa:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan		
	Kabiak bere gain hartu zueneko data	Kontratu subrogatuaren mugaeguna	Gastua 2022
Egoitza-zerbitzua Andoainen	urtarrila 2018	apirila 2019	2.484
Egoitza-zerbitzua Ordizian	ekaina 2018	apirila 2018	2.282
Garbitegi zerbitzua Ordizian.....	ekaina 2018	ekaina 2018	59
Arrasaten klinika eta harrera laguntzaileen zerbitzua.....	apirila 2019	abendua 2018	2.216
Arrasaten sukalde zerbitzua	apirila 2019	ekaina 2019	294
Arrasaten arropa zuriaren garbiketa	apirila 2019	urria 2018	65
Garbiketa Arrasaten.....	apirila 2019	abendua 2021	372
Egoitza-zerbitzua Bergaran	urtarrila 2018	urtarrila 2021	2.958
Dinamizazio-zerbitzua Bergaran	urtarrila 2018	urtarrila 2021	83
Zerbitzu soziosanitarioak Tolosan	apirila 2019	abendua 2018	3.404
Zerbitzu asistentzialak Tolosan	apirila 2019	abendua 2018	300
Zerbitzu soziosanitarioak eta asistentzialak Errearterian	urtarrila 2019	ekaina 2020	4.080
Osasun eta animazio soziokulturaleko zerbitz. Errearterian.....	urtarrila 2019	abendua 2019	510
Sukalde- eta elikadura-zerbitzuak Errearterian.....	urtarrila 2019	urtarrila 2019	360
Eibarren garbitegi zerbitzua	urtarrila 2020	abendua 2020	243
Mantentze-zerbitzua Eibarren	urtarrila 2020	abendua 2019	34
Sukalde-zerbitzua Eibarren.....	urtarrila 2020	martxoa 2021	328
Zerbitzu psikosoziala Eibarren	urtarrila 2020	abendua 2019	115
Mediku-zerbitzuak Eibarren	urtarrila 2020	Kontr. mugaeguneratua	119
Elikadura eta etxez etxeko zerbitzua Irunen.....	uztaila 2020	ekaina 2018	247
Arropa-garbiketa zerbitzua Irunen.....	uztaila 2020	urtarrila 2020	207
Zerbitzu asistentzialak eta harrerakoak Irunen	uztaila 2020	iraila 2021	1.344
Arreta psikologikoa emateko zerbitzua Irunen.....	uztaila 2020	Kontraturik gabe	42
Hernaniko adinek. egoitzan eta egun. zentroan gaueko zerbitzua.....	azaroa 2021	martxoa 2021	1.383
Hernaniko adinek. egoitzan eta egun. zentroan sukalde zerbitzua	azaroa 2021	ekaina 2021	442
Hernaniko adinek. egoitzan eta egun. zentroan animazio soziok.....	azaroa 2021	azaroa 2020	149
GUZTIRA			24.120



D. MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK

D.1 IBILGETU UKIEZINA ETA MATERIALA ETA EPE LUZEKO HORNIDURAK

Hona hemen Enpresa-sektore Publikoaren ibilgetu ukiezinaren eta ibilgetu materialaren kontuek 2022ko ekitaldian izandako mugimenduaren xehakapena:

IBILGETU UKIEZINA ETA MATERIALA	Euroak milakotan				
	Saldoa	Zuzkidura			Saldoa
SOZIETATEA	21.12.31	Altak	Bajak	Amort.	22.12.31
IZFE SA.....	6.413	6.275	-	(2.650)	10.038
Bidegi SA.....	1.229.794	18.707	-	(50.778)	1.197.723
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.....	1.459	-	(15)	(53)	1.391

Ekitaldiko ibilgetuko alta esanguratsuenak Bidegi Sarenak dira; hona hemen:

Euroak milakotan	
INBERTSIOA	Zenbat.
Kobrantsa-sistema A-15 eta N-1en.....	11.606
Emakida erabakiaren interesak abiaraztea (ikus D.4).....	3.437
A-636 kobratzeko sistema.....	1.377
Garraioaren Zentro Integrala AP-8 Astigarraga.....	1.150
Beste txikiago batzuk.....	1.137
GUZTIRA	18.707

Sozietateak finantza gastuen 3,4 milioi euroren zenbatekoa kapitalizatu du eta etorkizunean berreskuratuko direlako ebidentzia dago Sozietatearen Ekonomia eta Finantza Planari jarraikiz, abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduaren bigarren arauaren 3. atalean agindutakoa oinarri hartuta, Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen emakidadun diren enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena. Hori aurreko ekitaldietan kapitalizatutako 268 milioi euroei gehitzen badiegu, ibilgetu ukiezinaren finantza aktibazioko idazpuruak 2022ko ekitaldi itxieran 271,4 milioi euroren saldoa metatzea eragin du.

Bidegi SAk 2022ko ekitaldi itxieran ibilgetu ukiezinan zituen inbertsio-konpromisoak 39,8 milioi eurorenak dira.

Bidegi Saren Balantzeko epe luzeko hornidura-kontuak 24,6 milioi euroren saldoa du 2022ko abenduaren 31n eta emakida aldiaren amaieran azpiegitura GFARI itzultzeko beharrezko diren jardueri aurre egiteko eraturako zuzkidurari dagokio eta aldi horretan egin beharreko inbertsioekin lotua dago.



D.2 IBILGETUKO INBERTSIOAK ETA IZAKINAK

Ondasun higiezinetakoko inbertsioak aurkeztu dituen sozietate bakarra Etorlur Gipuzkoako Lurra SA da, eta 2022ko abenduaren 31n 3,8 milioi euroren balioa zuen Balantzean. Inbertsiorik esanguratsuen Hernaniko Orbegozo bulego-eraikinari dagokio, 3,1 milioi euroren kontabilitate-balio garbiarekin.

Foru sozietateen izakinetan Etorlur Gipuzkoako Lurra SArri dagozkionak gailentzen dira; hona hemen xehakapena:

IZAKINAK	Euroak milakotan	
	22.12.31	21.12.31
Intsaustiko lursailak eta eraikinak	6.131	6.131
Eskuratutako lursailak eta eraikinak (Etxebeste-Beizama)	91	-
Lursail eta eraikinen narriadura	(2.312)	(2.312)
Ibaiondo Florida sustapena Hernanin	29.236	29.236
Ibaiondo Florida sustapenaren narriadura	(23.033)	(23.033)
Azpeitia-Nuarbe sustapena	585	576
Azpeitia-Nuarbe sustapenaren narriadura	(174)	(174)
Etxebizitza 1 Beizaman	164	-
Eskuratutako lursail eta eraikinetarako aurrerak. (Azpikoetxe-Albatzisketa)	110	-
GUZTIRA	10.798	10.424

Intsaustiko lursail eta eraikinak GFAk ekarritako higiezinak dira, 2008ko ekitaldian egindako kapital-zabalkuntza baten ordainketa modura. Eremu horretan etorkizunean egin asmo den sustapenaren gaineko egungo zehaztugabetasunak eta higiezin horien gaineko arrazoizko balioaren gainean aditu independenteen balorazio ezak eragozten du 3,8 milioi euroren zenbatekoarekin erregistratu den kontularitzako balio garbiaren zuzentasuna egiaztatzea.

D.3 EPE LABURREKO FINANTZA INBERTSIOAK

Egoeraren Balantzeko idazpuru honetan azpimarratzekoa da Bidegi SArren saldoa, 37,2 milioi euro. Kopuru honetatik 36,8 milioi euro bi diru-ezarpeni dagozkie, honako xehakapen honekin:

- 29,1 milioi euroren diru-ezarpena, sei hilabeteko epean mailegu sindikatuaren interesen eta amortizazioaren ordainketei aurre egiteko, maileguaren polizak agintzen duen moduan.
- 7,7 milioi euroren diru-ezarpen bat, sozietateak aparteko konponketetarako erreserba modura eratu duena.



D.4 ZORPETZEA ETA GASTU FINANTZARIOAK

Bidegi SA da zorpetzea eta eratorri finantzarietako eragiketak dituen sozietate bakarra.

	Euroak milakotan					
	21.12. 31	Berriak	Amortiz.	22.12. 31	Epe luzera	Epe labur.
Banku maileguak.....	588.475	-	(44.302)	544.173	499.605	44.568
Zorpetutako interes iraungi gabeak				5.354		
Maileguak guztira					499.605	49.922
Finantza deribatuak				3.735	3.735	-
Epe luzeko bestelako zorrak guztira				3.735	3.735	-

Europako Inbertsioen Bankuko maileguk GFaren abala dute eta 2022ko ekitaldi itxieran 256,1 milioi euroren ordaintzeko saldoa dute (ikus B.10).

Bidegi SAREN finantza gastuak 2022ko ekitaldian honako hauek dira:

	Euroak milakotan		
	Emaitzetera egotziak	Kapitalizatuak	GUZTIRA
Maileguengatiko gastu finantzarioak.....	11.703	2.282	13.985
Swapengatiko gastu finantzarioak.....	5.923	1.155	7.078
GUZTIRA	17.626	3.437	21.063

D.5 PERTSONALEKO GASTUAK

Hona hemen merkataritzako foru sozietateen 2022ko ekitaldi itxieran Pertsonaleko gastuen eta plantillaren xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa:

	Euroak milakotan					
	Pertsonaleko gastuak		Plantilla guztira		Goi zuzendaritza	
SOZIETATEA	2022	2021	2022	2021	2022	2021
IZFE SA	10.944	10.352	(*)157	(*)160	1	1
Bidegi SA.....	1.601	1.495	(**)21	(**)22	2	2
Etorlur Gipuzkoako Lurra SA.....	591	569	8	9	1	1

(*) 2022/12/31n 8 langilek lanaldi partzialeko kontratuak zituzten, % 25ekoak (txandakako kontratuak); (2021ean 10 langile ziren).

(**) Izendapen askeko 2 lanpostu barne hartzen dira, goi zuzendaritzako 2 lanpostuz gainera.

2022ko ekitaldiko ordainsari igoera % 3,5 izan da 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.



D.6 HORNIDURAK ETA USTIAKETAKO BESTE GASTU BATZUK

Enpresa-sektore Publikoaren 2022ko ekitaldiko “Hornidurak” eta “Beste ustiapen gastu batzuen” xehakapena honakoa da saldo esanguratsuk dituzten merkataritzako bi sozietateei dagokienez:

SOZIETATEA	Euroak milakotan	
	IZFE SA	Bidegi SA
Beste enpresa batzuek egindako lanak	12.346	-
Beste txiki batzuk	27	-
HORNIDURAK	12.373	-
Aplikazioak, makineria eta ekipoen mantentze-lana	5.428	-
Konponketak eta zaintza	-	12.315
Profesional independenteen zerbitzuak	1.418	243
Banku zerbitzuak	-	1.587
Kudeaket. bst gastu korrante batzuk: AP-8 eta AP-1-en mant.-lana eta ustiapena...	-	35.396
Kudeaket. bst gastu korrante batzuk: A-636aren mantentze-lana eta ustiapena.....	-	4.837
N-1 eta A-15en kobrantza sistemaren mantentze-lana	-	1.052
Merkataritzako eragiketengatik zuzkiduren galerak, narriad. eta bariazioa	-	2.353
Beste kontzeptu txikiago batzuk.....	1.789	329
BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK	8.635	58.112

D.7 BESTE BATZUK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko gaitasun handiko A-15 eta N-1 errepideetako zenbait zati erabiltzeko kanona arautzen duten abenduaren 15eko 7/2016 Foru Arauaren eta azaroaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren bidez, gaitasun handiko tartetean salgaien garraiolariak ordaindu beharreko kanona onartu zen.

Arau horien aurka administrazioko auzi errekurtsuak aurkeztu ziren EAEJANen aurrean, zeinak, 2018ko apirilaren 9ko eta 2020ko maiatzaren 5eko epaien bidez, zuzenbidearen aurkakoak izendatu eta baliogabetu egin baitzituen; GFAk kasazio-errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean, eta hark 2021eko otsailaren 18an eta 2021eko maiatzaren 6an, adierazi zuen ez zegoela aukerarik 7/2016 Foru Arauarekin lotuta jarritako kasazio-errekurtsua aurkezteko, eta ez zuen izapidetzeko onartu 6/2018 Foru Arauarekin lotuta jarritako errekurtsua, hurrenez hurren.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean 1.042 erreklamazio aurkeztu dira, A-15 eta N-1 errepideen kanonaren itzulketei edo kalte-ordainei buruzkoak, guztira 13,1 milioi euro, eta GFAk ezetsi egin ditu guztiak. Ondoren, guztira 274 administrazioarekiko auzi errekurtsu aurkeztu dira, 5,5 milioi euro guztira. Errekurtsu horietatik, 2023an hainbat epai eman dira, GFA administrazioaren ondare-erantzukizunagatik kondenatzen dutenak.

GFAREN kontuetan ez da jasotzen salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzat GFAko A-15 eta N-1 edukiera handiko errepide-zati jakin batzuk erabiltzeagatik kanona ezartzeagatik jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsuen ondoriozko ondare-erantzukizunaren pasiboa. Erreklamaturako zenbatekoa 5,5 milioi eurokoa da, eta horri dagozkion berandutze-interesak gehitu beharko litzaizkioke.





D.8 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2022AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Mota	Esleip.		Egikar. 2022
		moldea	Zenbat.	
IZFE, SA				
Komunikazio-azpiegitura berriaren horn., inst. eta konfigurazioa, SDNn oinarrituta (5 urte).....	Horn.	PIH	1.810	1.267
IZFEren zerbitzu anitzeko sarerako datuak transmititzeko zerbitzuak (4 urte)	Zerb.	PIH	1.249	-
Stratio Augmented Data Fabric lizentziak hornitzea (42 hilabete)	Horn.	PIH	811	53
Nominako eta giza baliabideetako aplikazioak garatzea eta mantentzea (urte 1)	Horn.	PIH	726	77
Big Data plataforma ezartzeko azpiegitura eta ondorengo euskarria eta manten. (3 urte).....	Mistoa	PIH	641	630
Microsoft lizentzien hornidura (3 urte).....	Horn.	PIH	593	593
GFaren eta IZFEren eraikinen artean FO alokatzea eta mantentzea. 2 lote (4 urte).....	Horn.	PIH	592	-
BIDEGI SA				
A-636 errepideko zoruaren egitura birgaitzea, 0+000 eta 5+200 kk.pp. artean	Obrak	PI	4.982	4.873
Zarautzen AP-8 autobideko 38+130etik 39+512ra kk.pp. arteko pantaila akustikoak	Obrak	PI	3.952	-
Bidegiko errepide-sareko ezpondetako arriskuak arintzeko jarduketak	Obrak	PI	2.564	1.578
GI-20 errepidean, Erreterian, 1+200etik 2+222ra kk.pp. arteko pantaila akustikoak	Obrak	PI	1.906	336
Bidegi SAK kudeatutako errepideen sareko egituretan laguntza teknikoa ematea (3 urte).....	Zerb.	PIH	1.329	-
Zumaian hirugarren erreia sortzeko eta AP-8ko trazadura hobetzeko informazio-azterlana	Zerb.	PIH	1.202	145

AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Jatorria urtea	Esleip. zenbat.	EXEKUZIOA			Egoera
			21.12.31	2022	22.12.31	
IZFE, SA						
Hardware, software azpieg. eta HOST ingurunekeo mant.-lan eta eusk. (3 urte)	2019	10.796	7.797	2.999	10.796	Amait.
Backup azpiegituren berrikuntza teknologikoa (4 urte)	2020	1.142	542	200	742	Abian
AM laguntza tekn. zerbitzuak, aholkularitza eta garapen informatikoa (2 urte)	2021	(*)29.040	-	6.559	6.559	Abian
Ingurune banatuak biltegitzeko teknologia (4 urte).....	2021	1.410	-	1.386	1.386	Abian
Animalien identif. eta erreg. transf. tekn., abereen osasuna (3 urte).....	2021	1.271	-	305	305	Abian
BIDEGI SA						
AP-8, GI-20 eta AP-1en ustiapena, mantentze-lanak eta zaintza (8 urte) ..	2018	348.119	155.191	50.229	205.420	Abian
Esped. aldatua 1, 2021eko iraila		22.604				
Esped. aldatua 2, 2021eko abendua		8.964				
Gipuzk. Deskon. Planari atxik.o bezer. TAG gailuaren emisioa eta oper. (4 urte)	2019	1.045	523	261	784	Abian
A-636 autobian kobr. sistem. proiekt., obra gauz. eta mant.-lanak (67 hilab.)	2020	11.256	5.484	2.074	7.558	Abian
Esped. aldatua 1, 2021eko martxoa		13				
2022ko likidazioa		(672)				
Garraio Zentro Integralaren zaintza, manten. eta ustiapen zerbitzuak AP-8an	2020	7.270	-	909	909	Abian
N-1 eta A-15 errepid. Kobr. Sist. Handitz. proiekt., obra eta mant.-lanak (5 urte)	2021	33.220	-	10.915	10.915	Abian
Kontratuaren adenda 2.fasea.....		59				
Zarauzko kobrantza-eremua berritzeko proiektua	2021	6.371	650	3.880	4.530	Abian
AP-8 autobideko zoruaren egitura birgaitzeko proiektua	2021	1.657	1.515	53	1.568	Amait.

(*) Esparru-akordioaren gehieneko zenbatekoa





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. FORU FUNDAZIOAK

E.1 PERTSONALEKO GASTUAK

Hona hemen foru fundazioetako langileen gastuak eta ekitaldi itxierako plantilla osoa, goikargudunak barne (Kiroldgi Fundazioak ez du langilerik):

FUNDAZIOA	Euroak milakotan					
	Pertsonaleko gastuak		Plantilla guztira		Goi kargudunak	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021
Sueskola	707	656	11	11	-	-
Adinberri	303	290	4	4	1	1
Aldaketa Klimatikoaren Gipuzkoako Fund.....	351	332	5	5	1	1
Ziur.....	279	318	4	5	1	1
Mubil.....	344	245	5	5	1	1

2022ko ekitaldiko ordainsari igoera % 3,5 izan da 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

E.2 MONETA-LAGUNTZAK

Kirolgi Fundazioak bi jarduera-lerro garatzen ditu, Patronatuak 2022ko ekitaldian onartutakoak, eta guztira 4,1 milioi euroren gastua izan dutenak:

- 2022an kategoria gorenetan lehiatzen diharduten taldeak dituzten Gipuzkoako klubei laguntza-lerroa, guztira 3,3 milioi euroren gastuarekin. Laguntza hauek jaso dituzten klubak 20 izan dira eta talde onuradunak, berriz, 31.
- Banaka eta taldean parte hartzeko modalitateetan diharduten kirolariei laguntza-lerroa, zeinak 872.260euroren gastua eragin baitu. Laguntza-lerro honek bi jarduera-atal ditu:
 - Kirol-jarduerarako laguntzak (144 onuradun).
 - Prestakuntza akademikorako emandako laguntzak (74 onuradun).

E.3 JARDUERAREN BESTE GASTU BATZUK

Idazpuru honetan kontzeptuen araberako xehakapena honako hau da:

	Euroak milakotan						
	Kiroldgi	Sueskola	Adinberri	Klima			Mubi
				aldaketa	Ziur	Mubi	
Errentamenduak eta kanonak	-	6	-	43	35	197	
Zerbitzu profesional independenteak	140	125	351	82	146	261	
Beste zerbitzu batzuk	-	384	57	353	602	634	
Beste txiki batzuk	105	192	348	182	137	231	
GUZTIRA	245	707	756	660	920	1.323	





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E.4 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2022AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Mota	Esleipen moldea	Esleipen zenbat.	Egikar. 2022
ZIUR				
Segurtasun automatizatua baliozkotzeko soluzio bat eskuratzea	Horn.	PI	191	191
IKS inguruneetako segurtasuna ebaluatzeko zerbitzu-kanpainak	Zerb.	PI	143	-
MUBIL				
Helburu estrategikoak betetzera bideratutako komunikazio-plana inplementatzea	Zerb.	PGPN	(*) a.p.	29
HAINBAT FUNDAZIO				
Adinberri, Mubil eta Segurako aholkularitza juridikoko zerbitzu iraunkor eta integrala	Zerb.	PIH	a.p.	-

(*) Ikus akats espezifikoak Legezketasuna betetzeari buruzko atalean.





GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2022KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2022ko ekitaldiko Kontu Orokorrari egindako fiskalizazioaren emaitzei erantzuna ematearren, eta otsailaren 5eko 1/1998 Legearen 13. artikuluan zehaztutakoa betez, txosten honetan aurkezten ditugu aipatutako emaitzei dagozkien alegazioak eta justifikazioak.

II. IRITZIA ETA IRITZIAREN OINARRIA

II.2 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2. *Pleguetan aurreikusitako ez den 2022ko ekitaldirako prezioen eguneratzea, hirugarrenek emandakoa eta onuradun mota desberdinei zuzendutako gizarte zerbitzuei aplikatua, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du eta urteko % 6,3 eta % 6,6 arteko igoera du. Eguneratze horren ondorioz, urtean 15,5 milioi euro igoko da (ikus B.5.2). Onartutako igoera horrek, batez ere eskulanaren kostuekin lotuta, gainditu egiten du Espainiako Ekonomia Desindexatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako muga, eta muga hori bat dator sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariaren igoerarekin, 2022ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen eta urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuari jarraiki (% 3,5). Egoera bera gertatzen da desgaitasuna duten pertsonen zerbitzuak emateko irabazi-asmorik gabeko erakunde bati emandako dirulaguntza izendun batekin, horri prezioak % 6,3 eguneratu baitzaizkio, hau da 431.878 euro.*

ALEGAZIOA

Modulu berriak onartzeko eta prezioak eguneratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak 2022an gauzatutako espedienteen helburua izan zen mantentzea foru eskumeneko gizarte zerbitzuen prestazioaren kalitatearen estandarrak zerbitzuak ematen dituzten erakundeen jarraitasun ekonomikoa arriskuan jartzen zuen prezioen ezegonkortasun handiko testuinguruan.

Adinekoen arretaren sektorean nahiz esku-hartze sozialaren eta desgaitasunaren sektorean eskulanaren pisua handia izan ohi da kostuak kalkulatzeko. Gainera, 2022an, prezioen igoera oso handia izan zen gainerako kostuetan (batez ere, energian eta elikagaietan).

Hau ezin da interpretatu prezioen eguneratze gisa, Espainiako ekonomia desindexatzeko 2/2015 Legea urratuko bailuke; kontua da betetzea indarreko araudia lan arloko errealitatean ekonomikoki nahikoa den itun edo kontratua izanda, administrazioak bai baitu kontratazio prozedura hastekorakoan (SPKLaren 100. art.) edo gauzatzekoan betetzeko lege agindua, eta sektore horietako gehienetako hitzarmenetan % 6,3ko igoera adostu delako.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Horrekin batera, adinekoentzako arretaren sektoreko moduluak eta prezioak egokitu behar izan ziren 2022aren amaieran, Gipuzkoako Foru Aldundia hasi zelako kontratu-programa, hitzarmen eta kontratu administratibo guztietan soldataren inguruko gutxieneko baldintza batzuk sartzen prestazioak gauzatzeko moduan. Kontratuei dagokienez, soldatako baldintza horiek definitu ziren exekuzioko baldintza berezi gisa, eta horrek eragin zuen indarreko kontratu asko aldatu behar izatea eta, ezinezkoa izan zenean, kontratuak suntsiarazi ziren edo arrazoi horrengatik atzeratu ziren martxan zeuden lizitazio espediente asko.

3. *GFAk gizarte-zerbitzuen zortzi kontratu izapidetu ditu, SPKLren 29.4 artikuluan aurreikusitako 3 hilabeteko aurrerapenik gabe. Aurreko esleipendunek zerbitzuak eta hornidura ematen jarraitzen dute behin kontratuak amaitu ostean; honela, bada, espedienterik gabeko gastua 2022ko ekitaldian 12 milioi euro izan da.*

ALEGAZIOAK

Aldakonea eta Txara 2 zentroetako adinekoen egoitza

Espedientearen lizitazioan izandako atzerapena izan zen Donostiako Udalarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmen berriaren tramitazioaren konplexutasunaren ondorio, Txara II udalaren eskumeneko bizileku balioaniztunen zerbitzua emateko sinatutako kudeaketa gomendioaren indarraldia amaitu zelako. Egoera horiek administrazio hau baldintzatzen dute eta kontratazio espedientea zuzen tramitatu aurreko pausoa ziren.

Horrekin batera, soldataren inguruko gutxieneko baldintzak prezioen kostuen kalkuluan sartzeko prozesuak eragin zuen prestatzeko prozesua ia guztiz gelditzea.

Esku-hartze psikosoziala (Bideratu) eta esku-hartze sozioedukatiboa (Treatu)

Diputatuen Kontseiluak 2022ko abenduaren 20an onartu zuen espedientea (2022/114 esp.), baina 2022ko urtarrilaren 25ean, kontratazio-arloko errekurtsio berezi bat jarri zen baldintza-agirien aurka, eta lizitazioa etenda geratu zen.

Emakumeei arreta emateko zentroak: hainbat zerbitzu

Diputatuen Kontseiluak 2022ko apirilaren 12an onartu zuen espedientea (2022/25 esp.), baina 2022ko maiatzaren 16an, kontratazio-arloko errekurtsio berezi bat jarri zen baldintza-agirien aurka, eta lizitazioa etenda geratu zen.

Txara 1 bizikidetzaren unitateen kudeaketa

Atzeratu egin da Administrazio honekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik; izan ere, enpresa kudeatzaileak ez zuen garaiz aurkeztu langileen subrogazio-zerrenda zuzena, nahiz eta behin eta berriz eskatu zitzaion. Gizarte Politiketako Departamentuaren ustez, lanbide-profiletako bat ez zen beharrezkoa kontratua behar bezala gauzatzeko, eta, gainera, haren





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

baimenik gabe eta kontratua urratuta sartu zen. Azkenean, kontratazio hori behar bezala egitea lortu zen, baina ezin izan zen adierazitako epean egin, aurreko kontratistak planteatutako zailtasunengatik.

Eguneko zentroa, laguntza-etxebizitzak eta Elizaran zentroko tutoretzapeko apartamentuak

Espedientearen lizitazioan izandako atzerapena Donostiako Udalarekin sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmen berria izapidetzeak ekarri duen konplexutasunaren ondorio da, amaitu baitzen Elizaran zentroan udal eskumeneko apartamentu babestuen zerbitzua emateko sinatu zen kudeaketa-gomendioaren indarraldia.

Egoera horiek administrazio hau baldintzatzen dute eta kontratazio espedientea zuzen tramitatu aurreko pausoa ziren.

4. *GFAk hornidura bat eta zerbitzu bat kontratatu ditu, 2022ko ekitaldian 2,6 milioi euroren guztizko gastuarekin, dagozkion prozedura irekiak erabili gabe. Egoera bera gertatzen da lau obra, hornidura eta zerbitzutan, 1,6 milioi euro guztira, zeinak, gutxienez, prozedura ireki sinplifikatuen bidez izapidetu behar baitziratekeen.*

ALEGAZIOA

Arreta goiztiarreko zerbitzua (11 hornitzaile)

Arreta goiztiarreko zerbitzua arautzeko esparruari dagokionez, 2023an argitaratu da 24/2023 Foru Dekretua, Arreta Goiztiarreko Zerbitzu Publikoaren prestazioa arautzen duena. Foru dekretua indarrean jarri ondoren, orain Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua deialdia prestatzen ari da zerbitzua ituntzeko.

II.4 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2 *Ibilgetu material eta ukiezinak 2022ko abenduaren 31n 2.826,1 milioi euroren amortizazio-kostu garbia izan du eta ez dago kontu-sail jakinetarako inbentario batean euskarritua, zeinaren kostu garbia guztira 693,4 milioi eurorena baita; honenbestez, ezin jakin daiteke ondasun eta eskubide horien egiazko egoera.*

ALEGAZIOA

Eragiketak banan-banan eta xehetasunez identifikatzeko lanari ekin zaio, eta nabarmendu da 2.861,8 milioi euroko zifratik (HKEEren 2021eko txostena) 693,4 milioi eurora igaro dela 2022an, eta azpiegituretan zentratu dela lana. Identifikazio xehatua lantzen jarraituko da.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3. 2022ko abenduaren 31n indarrean jarraitzen dute GFak eta dena delako udalek sinatutako zortzi hitzarmenek, Gipuzkoako Foru Aldundiari zaharren egoitzetako eraikinak doan lagatzeko, lagapena formalizatzeko hitzarmenetan ezarritako bederatziz hilabeteko epea amaitu ondoren. Adinekoentzako zortzi egoitza horiek Kabia erakunde autonomoaren ohiko jardueran sartuta daude sinatutako hitzarmenak indarrean sartu zirenetik, eta ez daude ez GFaren ez Kabia erakunde autonomoaren balantzeetan jasota. Halaber, egoera-balantzean erregistratzeko daude Lazkaoko, Zumaiako eta Zumarragako egoitzen obrako administrazio-emakidak.

ALEGAZIOA

Ekitaldi honetan, arau-agindu horiek betetzeari buruzko ekintzak egin dira, eta espediente guztiak oraindik jorratu ez badira ere, aipagarria da pixkanaka egiten ari den lana, ekitaldi bakoitzean egin gabe dauden lagapenen zerrenda txikiagoa baita. 2023an Azkoitiko eta Irungo egoitzen lagapena jaso da.

4. GFaren kontuetan ez da jasotzen salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunentzat GFako A-15 eta N-1 edukiera handiko errepide-zati jakin batzuk erabiltzeagatik kanona ezartzeagatik jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen ondoriozko ondare-erantzukizunaren pasiboa. Erreklamaturako zenbatekoa 5,5 milioi euro da, eta horri dagozkion berandutze-interesak gehitu beharko litzaizkioke.

ALEGAZIOA

Foru Aldundiak, 2022ko ekitaldiaren itxieran, une hartan eskuragarri zegoen informazioarekin, 2022ko abenduaren 23an emandako epai bakarra jaso zuen, eta, Gipuzkoako Kontabilitate Publikoaren Planaren «Hornidurak, aktiboak eta pasibo kontingenteak» 17. aintzatespen- eta balioespen-arauari jarraituz, hornidura-zuzkidurarik ez zela bidezkoa erabaki zuen.

Arau horrek hornidura bat kontabilizatzeko bete behar diren aintzatespen-irizpideak jasotzen ditu; bereziki: betebeharrak (legala, kontratuzkoa edo inplizitua) egotea, iraganeko gertaera baten ondorioz, litekeena izatea erakundeak baliabideak kendu behar izatea, eta zenbatekoaren zenbatespen fidagarria egin ahal izatea. Betebeharrak aurreko baldintzak betetzen ez dituzenean eta pasibo kontingente bat dagoenean, memorian jakinaraziko da.

HKEEK adierazten duen bezala, egoera desberdina zen 2023aren amaieran; izan ere, 2023an epaiak jaso dira, baina informazio hori ezezaguna zen 2022aren amaieran, eta, beraz, 2022an ez hornitzeari buruzko erabakia aplikatu beharreko kontabilitate-araudiaren arabera hartu zen





VI. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

VI.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

VI.A.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Kontratazio espedienteak (ikus B.13.1)

- *Guztira 87,4 milioi euroan esleitutako hogeita bat espedientetan (3tik 10ra, 12, 13, 17tik 26ra eta 34 zk. espedienteak), "prezioa" irizpidea baloratzeko erabiltzen den formulak ez ditu jarraitzen 2018ko ekainean Foru Gobernu Kontseiluak kontratazioaren kudeaketan onartutako praktika egokien gomendioak, formula hori erabiltzeko arrazoiak justifikatu gabe.*

ALEGAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak obra kontratuetan erabiltzen duen "prezioa" irizpidea baloratzeko formula erabili da.

- *Bost espediente (9, 10 eta 12tik 14ra zk. espedienteak), 2,5 milioi eurorenak, esleitzeko ebazpenek ez dute adierazten zein den kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko enpresa esleipendunaren hitzarmen kolektiboa.*

ALEGAZIOA

14 - Garraio Publ. kudeatz. Lurraldebus Guneko eragiketa eta erabiltzaileen arreta

Adierazi behar da langileen eskubide eta betebeharrei buruzko gizarte-arloko araudiaren aplikazioa, nolnahi ere, kasuan kasuko kontratuari aplikatu behar zaiola, organo honek gai horri buruz ez baitu inolako diskrezionalitate-tarterik. Komeni da esatea kontratua garatzean beste kidego juridiko sektorial batzuk ere aplikatu behar direla, esleipenean aipatzen ez direnak eta nahitaez bete beharrekoak izaten jarraitzen dutenak.

- *Guztira 373.980 euroan esleitutako bi espedientetan (13 eta 33 zk. espedienteak), esleipena bi eta sei hilabete atzeratu da, hurrenez hurren, legean aurreikusitako epearen arabera.*

ALEGAZIOA

33 - GFAko artxibo historikoen antol. eta agiri garaikideen deskribapena

Enpresa lizitatzailer batek errekurtsio berezia ezarri zuen KONTRATAZIO ALORREKO ERREKURTSOETARAKO FORU AUZITEGI ADMINISTRATIBOAREN aurrean, eta errekurtsioa ebatzi bitartean etenda egon zen izapidetzea. Horregatik atzeratu zen esleipena.





Beste batzuk

- *Haurtzarorako arreta espezializatuaren arloko hezkuntza-laguntza indibidualerako zerbitzuak (prozedura ireki bidez esleitutako kontratuen zerbitzu osagarriak), 2022ko ekitaldian 1,3 milioi euroren gastua izan dute eta kontratu txiki moduan izapidetu dira; ordea, aleko prezioen bidez esleitu beharko lirateke, kontratu nagusiaren esleipenarekin batera.*

ALEGAZIOA

